


GRAZIANO ANDUAGA

# EGUNSENTIKO TXORIA

TA BESTE BERTSO ASKO



AUSPOA LIBURUTEGIA

**EGUNSENTIKO TXORIA**  
**TA BESTE BERTSO ASKO**

**AUSPOA LIBURUTEGIA**

**30**

---

**COLECCION AUSPOA**

Pl. de Sta. María, 2 - Telef. 66 16 12 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España)

**ORDAINDU BEARRAK :**

Urte betekoa: 485 pezeta

Ongilleak: 800 »


Atzerrian: 640 pezeta

Ale bakarra: 60 »

GRAZIANO ANDUAGA

# EGUNSENTIKO TXORIA

TA BESTE BERTSO ASKO



AUSPOA LIBURUTEGIA  
1963

*Depósito Legal S. S. 1207/63*  
*Número Registro 3244/63*

---

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 13 - TEL. 17381  
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

## ARKIBIDEA

Itzaurrea ... ..	9
D. Ladislao Sagastizabal-i ... ..	17
Oñatiko Oñatiarrak ... ..	21
Urbiako ermitaren bedeinkazio-eguna ... ..	26
Nekazaritza goratuaz ... ..	35
“Basarri”-k Graziano-ri ... ..	41
Langille batek Graziano-ri ... ..	45
Kaletar baten erantzuna Graziano-ri ... ..	51
Gosea bai ta ogirik ez ... ..	57
“Caja de Ahorros”-en omenez ... ..	65
Grazianok “Basarri” jaunari ... ..	73
Langilleari eta kaletarrari erantzuna ... ..	79
“Basarri”-k Grazianori (txantxa-benetan) ... ..	86
Fraisku mutilzarra ... ..	90
Morroia eta nagusia (Paulo eta Graziano) ...	100
“Basarri” jaunari ... ..	107
Arantzazu, ze izen ederra! ... ..	111
1946-ko urteari ... ..	118
Langillea ta alperra ... ..	124
Osasunaren iturria, egunsentiko txoria ... ..	132
Erleen bizimodua ... ..	138

## ITZAURREA

“Auspoa”-ren Zuzendariak eskatu dit Grazianoren bertso-bilduma prestatzeko; baiña lanean asi bezain laister konturatu naiz, aren bertso danak argitaratu nai badira, ba-degula onelako beste bi liburu gutxienez betetzeko aiña, eta obe izango dedala soseguz eta zatika ibiltzea.

Izan ere Graziano, Gezaltzako aitona, izugarri jori ta ugaria izan degu bertsogintzan. Makiña bat ditu argitaratuak. Eta argitara-gabeak ere ez dira gutxi. Nere lana ordena pixka batekin eramateko, argitaratuetatik asi nai izan det, eta oien artean ere, al dala, zaarretatik herrietara joanez, au da, bertso bakoitzaren urte-mugari begiratuaz.

Baiña Grazianoren bertso zaar-zaarren berri jakitea ezta beti erraz. 1945 gn. urtean asi zan Arantzazuko errebista Grazianoren bertsoak ateratzen; ordutik onerakoak jakiten eztago istillurik, geienak errebista ortan atera diran ezkerok; baiña urte orren aurretik ere Grazianok inprentatu zituen zen-

bait bertso edo papertxoetan edo folleto txi-  
kitan, eta orain ezta erraz oiek billatzea.  
Auekin ditut ba lanak.

Grazianok berak etxean baleuzka bere  
bertso danen paperak, askozaz errazagoa  
izango litzake nere egitekoa, eta osoagoa ate-  
rako litzake bilduma au, baiña gaur bein-  
tzat eztago aren etxean oien arrastorik. Baz-  
terren garbitasuna egiteiakoan ezkutatu  
omen ziran danak. Auzoko beste etxe ba-  
tzuetan ere galdetu det, baiña alperrik:  
lenago bai, bazituztela olako paperak —esa-  
ten didate—, baiña gero, edo umeak apur-  
tu, edo galdu edo desegin ziralaa. Emengo  
andre batek itz auekin kontatu dit beren  
aitak esaten ziena, etxe-garbitasunaren ai-  
tzakiz alabak paper oiek sutara bota nai zi-  
tuanean: "*Oriek etxuen ogirik eskaketan*";  
baiña ala ere etzioten parkatu.

Egilleak berak ere orain eztitu gogoan  
bertso zaar-zaar aiek. Zein, zenbat eta noiz  
atera zituen ere eztaiki garbi esaten. Zorio-  
nez ba-dira auzoan berak haiño obeki ber-  
tso zaar oietako batzuk gordetzen dituzte-  
nak, ez paperetan, baiñan buruko artxibu-  
an. Batez ere Biktoría Igartua, Ladislao  
Odrizola Aizkirri baserriko etxejaunaren  
emazteak, Grazianoren bertso-parrasta lu-  
zeak kantatu dizkit, eta zein urtetan gutxi



gorabera atera ziran ere zeatz asko esan dit. Orrela bada, batari eta besteari galdetuaz, garbitasun auek atera ditut:

Grazianok inprentatu zituan leenbiziko bertsoak 1902 urtekoak dira, liburutxo edo folleto txiki batean, zezen baten kontuak aitatuaz. 34 bertso omen ziran guzira. Auzoko amabost etxeren artean zezen bat ekarri zutela-ta, zezen orren goraberak kontatzen ziran bertso aietan.

Gero, 1903-aldera atera zituen beste batzuk. Auen asiera onela zan:

“Ditxa gozo batekin  
biba gure Oñati...”

Oekin batean, edo andik urbil, atera zituen beste batzuk, onela asten ziranak:

“Ispillu bat jartzeko  
mundu guztiari...”

Geroago (eztakit zein urtetan), erromatarren bertsoak inprentatu zituen: erromatarrek euskaldunekin izandako burrukak kantatuaz, alegia.

Baiña erromatarren bertso auek etziran gure egillearenak, Iztuetarenak baizik. Grazianok norbaiti entzun zizkion eta inprenta-arazi egin zituen. Garai artan ba-zan Oñatin *Raldúa* izeneko inprenteru erdaldun

bat, eta aren etxean ateratzen zituen Grazianok bere bertso-paperak. Oien artean dira Grazianoren bertsorik zaarrenak, baiña orain ezta errez oiek arkitzea. Nik beintzat bertso zaar-zaar oien paperik ez tet orain arte arkitu, baiña arkitzeko esperantza ez det galdu. Buruz dakitenai galdetuz ere osatu ditezke bearbada, baiña oraindik paperak azalduko diralako ustean, ez titut libru ontan jartzen.

\* \* \*

Gazte-gaztetik izugarrizko zaletasuna izan du Grazianok bertso gintzarako. Bere seme zaarrenak alaxe dio: "Ori lanean dabillenean ere, beti bertsoak egiten diardu". Berberak ere orixe hera aitortu zidan.

—Graziano, zuk noiz ta nun egiten dituzu bertsoak?

—Soluan, itoian (ikulluan), oian ta nunai. Egun danetan ezta izaten berdin. Eria beti ezta izaten. Eria danian buruz asma-tu eta gero eskribiduaz joan bear...

Auxe da ba gure bertsolariaren lan egiteko tankera. Bat-bateko bertsoetarako ez tu izan orrenbesteko trebetasun edo afiziorik. Bertsoak buruz eta astiro ausnartu, eta gero paperean jarri: au izan da bere jokabidea.

Askotan entzun izan det bertsolari ospetsu izan diranak, nekazari-lanetarako eztirala langille oso piñak izan, ala-olako nekazariak izan dirala, alegia; Grazianori ezio iñork olako tatxarik jarriko. Arentzat bertso-gintza ezta batere traba edo eragozpen izan, nekazari osoa izateko. Gorago esan degun bezela, lanean ari zan bitartean asmatzen zituan bere bertsoak, era ortara bi gauza auek —lana ta bertso-gintza— alkartuaz.

Bere zaletasun arrigarri onen sustraia jakin nairik, galdetu nion bein:

—Nundik eldu zaizu zuri zaletasun ori?

Parre egiñaz esan zidan:

—Nik al dakit ba?

—Zure guraso edo aurrekoetatik ote?

—Ez. Nere gurasoak etzuten bertso-rik egiten.

Baiña geroxeago ara zer jaulki zitzaidan:

—Orduan —bera gazte zanean— eskekoak (eskaleak) ibiltzen ziran, eta eskeko oieta-ko batzuek bertso-paperak saltzen zituzten. Ni oiek irakurriz pitin bat zaletu nintzan bertsoekin. Orain eskekorik be eztago, baiña len olako asko ikusten zan; Arantzazuko komentuan beti egoten zan eskekoren bat bazkal orduan. Or, Tolosa ta Donostia-

-aldean, sagardotegietan ibiltzen omen dira bertsoetan, baiña emen eztegu ezagutu olakorik, sagardotegirik ere emen ezta izan.

\* \* \*

Gezaltzako aitonaren berriak (eta bai Arantzazuko alde onetakoak ere), ugari eman ziran "Aitonaren Uzta" izenarekin Kulliska-Sortan atera genduan libruan: eztegu ba aiek emen herritu bearrik. Grazianoren bertso-parrasta bat ere eman genduan libru artan. Oiek ere, an dauden ezkerero, eztitugu emen herriz jarriko. Bakar-bakarrik *Frais-ku mutilzarrarenak* azaltzen dira berrero, an osorik agertu etzirako, eta gaiñera argitasun jakingarri batzuk emateagatik. Oiek kenduezkero, an jarritakorik eztegu emen jartzen.

Libru ontan dijoazten bertsoak, danak izan dira lenago inprentatuak: edo bertso-papereetan, edo periodikuan, edo Arantzazuko errebistan; baiña emen eztaude Grazianok inprentatu dituan bertso guztiak, 1949-raiñoakoak baizik. Geroztik argitaratuak, eta sekula egundaiño argitara eztiranak, beste bein emango ditugu, Jaungoikoak nai badu.

Danok dakigu Aita Zavala trebea nola ibilli izan dan erriz erri ta etxez etxe bertso-

-paperen billa. Bere ibillaldi oietan maiz eskeiñi izan diote Grazianoren bertso-pape-rak; baserri askotan, bertso oiek zekarzkian Arantzazuko errebistaren orria kendu eta arduraz gordetzen zuten. Orrek esan nai du gure erriak gogoz irakurtzen duala Gezaltza-ko aitona. Eta aitonari berari ere esan dio-te bein baiño geiagotan: Errebista ori guk eztegu bear, zure bertsorik ezpadakar... Ne-ronek ere izan det erriaren estimazioa egiz-tatzeko proba bat baiño geiago. Oraindik egun gutxi dala, eta ni Graziano berarekin bere bertso-kontuak garbitzen nengoela, eto-rrri ziran Gezaltzako baserrira Errenderiko senar-emazte batzuk, Gezaltzako aitona eza-gutzeagatik, eta here bertso ederrengatik ari eskerrak ematera.

Aita Demetrio Garmendia izan zan Gra-zianoren bertsoak Arantzazuko errebistan jartzen asi zana, 1945 urtean, Aita Joakin Arriaran errebistaren zuzendari zala; eta arrezkero ia etengabe agiri da errebista or-tan Gezaltzako aitonaren zer edo zer.

Bertso auek librura aldatu baiño leen, ba-na-banaka irakurri izan dizkiot egilleari be-rari, itz batzuen gaiñean galderak egiñaz, eta bertsoei buruz argitasun batzuk jartzea-gatik.

Basarri jaunarekin ere Graziaanok izan dituzte txantxa-benetazko bertso burruka batzuk, eta orduan, bai onenak eta bai arenak ere alkarren ondoan jartzen ditugu, ortarako Basarri berari baimena eskaturik.

Oñatiko Aita Migel Estanga Laterandarrari eta Daniel Mugarza jaunari eskerrak biurtzen dizkiet, eman dizkidaten argitasun batzuegatik.

*Aita Luis Villasante, O.F.M.*

Arantzazu, 1963-ko Apirillaren 20-an.

## D. LADISLAO SAGASTIZABAL-I

1911-ko Otsaillaren 24-an festak izan ziran Oñatin. Egun ortan bertako Parroko jaunak bere erretorgoaren zillarrezko eztaiak ospatzen zituan, eta Grazianok bertso auk eskeiñi zizkion. Oñatiko berriketariak (Olakua zeritzaion) Donostiako "El Correo de Guipúzcoa" periodikura bialdu zituan bertsoak, baita an azaldu ere.

Sagastizabal jaunaren jai ortan Aita Mortara laterandar ospetsuak egin zuan sermoia. Aita Mortara judu odolekoa zan. eta guztiz ondo menderatzen zuan euskera. Aita Laterandarrak Oñatin daukaten etxea berak fundatua da.

Sagastizabal jauna Oñatiko semea zan, Berezano auzokoa. 1918 urtean il zan. Bere liburutegi dana Arantzazuko komenturako utzi zituan, Aita Mortara, berriz, 1940-an il zan Liejan.

- 1/ Aita D. Ladislao  
beneragarria  
animak salbatzera  
mundura etorria,  
Jesus maitiak berak  
lan ortan jarria  
zuzen eraentzeko (1)  
Oñatiko erria.

2/ Puesto ontan darama  
orrenbeste urte  
etsai gaiztuen kontra  
peleatzen fuerte;  
Oñatiarrak badegu  
nai ainbat suerte,  
berori bizi bada  
gu geraden arte.

3/ Asko disfruta beza  
gaurko egunian  
berorren adiskide  
danen konpañian;  
ongi porta dalako  
orain arte guzian,  
seguru dago beste  
ogei ta bost urtian.

4/ Beti idukitzen det  
berori goguan,  
ala obligazio  
daukadan moduan,  
sartu ninduanetik  
nere estaduan:  
falta nuan saietsa  
daukat kontaduan (2).



- 5/ Argatik zor diogu  
mundutze bat grazi (3),  
asko emanda ere  
geiago merezi;  
nere emaztiakin  
kontentuz naiz bizi;  
ala ezpalitz ere  
ezin neike utzi.
- 6/ Gogoz eskeintzen diot  
guk aldegun dana,  
noiznai agindu guri  
nik dezakedana.  
Badakit ez naizela  
serbitzari ona,  
baña kunplitutzen det  
berorren esana.
- 7/ Tentazio aundiak  
gaur ditu Elizak:  
eurok sendatu biar  
or datozen gaitzak;  
obraz (4) ontzen badira  
pulpitoko itzak,  
azpiratuko dira  
gaurko etsai portitzak (5).

8/ Bedeinkatu ditzala  
zeruko (6) nausiak  
berorren konpañian  
gaur dauden guziak  
eskarrekin askotan  
zelebratutziak  
ala konbeni bada  
Jaunari graziak.

9/ Adios, gure Aita,  
ez noa luzatzen,  
badakit nagoana  
asko molestutzen.  
Bertatik umildadez  
dizkiot eskatzen  
Anduagaren faltak  
barkatu ditezen.

---

(1) **Eraendu** = gobernatu.

(2) **Daukat kontaduan** = nere ardurapean, nere kontura.

(3) **Mundutze bat grazi** = grazi ugariak.

(4) **Obraz**. Periodikuan agertutako bertsoetan **obran** jartzen du; Grazianok uste du **obraz** bear duela izan, eta ala jarri degu.

(5) **Portitza** = indartsua. Grazianok dionez, itz au Arantzazuko inguru ontan esaten da edo esaten zan beintzat.

(6) **Zeruko**. Periodikuan **Gueroen** dakar. Makurren bat da, dudarik gabe. Berak jarritako itza zein ote dan, egilleak ezin du asmatu. **Zeruko** ori gerok jarria da.

## OÑATIKO OÑATIARRAK

*Aita Zavalak utzi didan bertso auen kopia, Gregorio Mujika zanaren bertso-paper bildumatik egiña izan da. Aren bertso-paperak 1928 omen dauka eskuz jarria. Baiña nik egin ditudan galderetatik, eta batez ere Aizkirri baserriko Biktoria Igartuak eman dizkidan garbitasunetatik, pixka bat zaarragoak dirala atera izan det: 1922 edo inguru artakoak.*

*Oñatiko auzo danen gorabesak, alde onak eta txarrak aipatzen dira, eta batez ere Gezaltzako baserrietakoak.*

- 1/ Bota bear nituzke  
lau xelebrequeri  
farre eragiteko  
erri guztiari;  
ala bearrez nintzan  
jaio nekazari,  
baserri bikaña ta  
gauza onak ugari,  
gure erritar danak  
badakite ori.

- 2/ Iru Idigoratzak  
eta Garagaltza (1),  
danak baño bakarrik  
obe da Gesaltza (2).  
Ura da baserri bat  
berez aberatsa  
nundik eztakiela  
betetzen da poltsa,  
gaur lañoetan gora  
bear nuke altxa.
- 3/ Gesaltza lako etxerik  
iñun ezta sortu,  
asko egongo dira  
an sartzeko gertu,  
baña antxe bizitzen  
gu ezin aspertu;  
guk utzi gabe bestek  
ezin leike artu,  
utziko deguna're  
eztala ziertu.
- 4/ Askok jarri oi dute  
dirua bankuan,  
galdu ere egin leike  
kiebra egindakuan:  
guk an gordetzen degu  
kueba zuluan (3),  
antxe bai daguala  
leku seguruan,  
guk bakarrik dakigu  
an zenbat daguan.

- 5/ Ala nago guztioi  
adierazitzeko,  
dirua gauza ona da  
ongi bizitzeko,  
baña edozeñekin  
ezta fiatzeko,  
sobra daukanak eman  
guri gordetzeko,  
an eztago bildurrik  
kiebra egiteko.
- 6/ Gesaltza len da gero  
baserri bikaiña,  
an artzen du bakoitzak  
nai duan tamaña,  
gauza ona askotatik  
konbeni dan laña,  
jan da edan egin arren  
ustez alegiña,  
an laster biurtzen da  
gizona sardiña.
- 7/ Leku onak baditu  
Oñatiko erriak,  
askok egin dituzte  
etxiak berriak,  
jauregi biurtuta  
daude baserriak,  
mayorazkoak dira  
gitxienez erdiak,  
kaletar asko daude  
enbidiz jarriak.

- 8/ Zubillaga, Zañartu  
 auzo orietan,  
 danak bizi dirade  
 komenentzietan,  
 ezer etzaie falta  
 eren etxietan,  
 ondasunak ugari  
 alde guzietan,  
 toki oberik ezta  
 Euskalerrietan.
- 9/ Garagaltza (4), Uribarri  
 ta Olabarrietan,  
 iñon enbidirikan  
 eztute ezertan,  
 dirua ta gauza onak  
 danak daude bertan;  
 gertatzen dan bezela  
 toki guztietan  
 batzuek ondo jan da  
 besteak dietan.
- 10/ Torre-auzo, Berezau,  
 Murgi ta Larrasña,  
 oietan danak dira  
 norberetzat lasña;  
 Urruxola, Araoz,  
 Goi-auzo (5), Madisña,  
 ortxe gaude jentes  
 poltsatik arisña:  
 dirua eukiko genduke  
 zintzoak bagisña.

11/ **Kaletarrari** ere  
bear diet esan,  
guretzako etsaiak  
ez ditezela izan;  
baserriko gauza onak  
merke artu plazan,  
or dabilta jan da edan  
jolas eta dantzan,  
beti ala izango  
diran esperantzan

12/ **Komentzi** aundiak  
daude gaur kalian,  
danok ikusten degu  
begien aurrian,  
atsegiñetan dabiltz  
nor bere neurrian,  
bizi badira ere  
aukera ederrian,  
neskatxa klabeliñak  
beti baserrian.

---

(1) **Iru Idigoratzak** = Idigoras izeneko iru baserri, Oñati-aldean. Andik bereala dago, altura batean, Garagaltza, baserri bakarra.

(2) **Grazianok** dionez, bertso au ezta berak asmatua, antziñakoa baizik. Izan ere, oso zabaldua dago.

(3) **Kueba zuloa**. Gesaltzako baserrien ostean arkitzen da arzulo ospetsu bat. Ura du emen go-goan Grazianok.

(4) **Garagaltza** = Oñatiko auzo baten izena. Zubillaga, Zañartu, Olabarrieta, Uribarri ta abar. oiek ere Oñatiko auzoak dira.

(5) **Goi-auzo**. Au da Arantzazuko auzoa.

## URBIAKO ERMITAREN BEDEINKAZIO-EGUNA

*1924-ko Agorraren 28-an izan zan Urbia-ko ermita ederraren bedeinkazio-eguna. Mateo Mujika jauna etorri zan bera bedeinkatzera, artean Iruñeko Obispo zala. Gertaera orren zenbait berri jakin nai duanak. ikus dezake "Aránzazu" III (1924), 344-345. Aita Adrian Lizarralde-ren eragiñari eskerak jaso zan elizatxo ori. Bertso auek ere Lizarralde beraren aginduz egin omen zituen Grazianok. Inprentatu eta kanta-papere-tan zabaldu ziran.*



- 1/ Aizkorri aldeko erpin guztiak  
ain dauzkagu ditzakari  
arrera (1) ona egin bearrez  
Zeruko Erregiñari:  
gaurko goizean mendi ontara  
agertu dan izarrari  
Arantzazuko aitonatxo bat  
jartzen zaio bersolari.
- 2/ Zeruko Ama maitagarria,  
emen gauzkazu begira,  
bein da berriz gu zaintzera  
bazatoz Euskalerrira;  
len Arantzazun ortxe zauzkagu,  
ta orain berriz Urbira,  
euskaldun danok eramatera  
zeruan erdi erdira.
- 3/ Jesusen Ama lendik zegoan  
Jaun aundi bati esana  
egunen baten Urbi zelaira  
bera etorriko zana;  
Euskalerrria nola izan dan  
beti beraren kutuna,  
orretarako jaso zedilla  
elizatxo bat txukuna.

- 4/ Arkaitz tartean ermita onek  
ematen du ain ederki!  
Au egin dute artzai guztiak  
Meza entzuteagatik:  
Jesus maiteak egiten digu  
bere deia Aizkorritik:  
Or daukazute nere Amatxo  
ta ni emen nago beti!
- 5/ Mundua mundu euskal semeak  
beti beti beren antza:  
ongille askok limosna egifiaz  
ermitatxo au da altxa:  
zabaldu dute batzuek eskua  
eta beste askok poltsa,  
beti bai da elizkoia  
Euskalerriaren biotza.
- 6/ Bartko gaubean Euskalerrian  
ez da begirikan bildu,  
Birjiña Amaren izen goxoa  
ain gutxi aoz isildu;  
etortzeko diñ geran guztiok  
gaituzte zintzo biraldu,  
eztakit zeinbat millaka geran  
eguneko Urbira eldu.

7/ Ordu onean zabaldu du bai  
Jainkoak gaurko eguna;  
eguzkia ere argigoa  
danok ikusten deguna:  
jai oni itxura emateko  
ameserik ere ezkenduna!  
Zorionez, zein da etorri zaigu  
Iruñako Obispo Jauna.

8/ Mujika Jaunak onra aundian  
Meza santua eman du;  
talde aundia bedeinkatzeko  
erara ederra izan du;  
bakoitzak bere egin bearrak  
nola ditugun esan du,  
eta sasoiari ibillitzeko  
egin ez dedin berandu.

9/ Jai galant ederra egin zaio  
gure Andra Mariari:  
aurrekulari, ezpata dantza,  
txanbolin da bersolari;  
euskaldunen oitura garbiak,  
fede sutua agiri:  
gaur Urbiako zelai zabala  
Paradisoa dirudi.

10/ Gure Amatzok, agurtzen emen  
gaituztenean ikusi,  
etsai guztiak amildu dira  
Aloñatikan igesi:  
jai eder au toki onetan  
orain gertatu da lenbizi;  
datorren urtean bigarrena,  
zutik eusten bada Aizkorri.

11/ San Franziskoren seme zintzoak  
Birjiña Ama dute zaintzen;  
Franzisko deunak zeru goitikan  
alaxen die agintzen,  
ikusten degu mundurik mundu  
gau ta egun nola dabiltzen  
aldendutako ardi galduak  
Jesusen taldera biltzen.

12/ Diputadu Jaun ospatsuai  
nola asiko naiz esaten?  
Bide berri bat Urbiaraño  
len bai len egin dezaten:  
askotxo dira iñolaz ere,  
amaika bai or da emen,  
goruntz etorriko lirakenak  
oñak ezpalira erren.

- 13/ Lotsa aundian itz egiten det  
Jaun aundi oien erdian;  
kamiño berria asiko dute  
datorren udaberrian;  
orduan zeñek eztu joko  
Urbira suzko gurdian?  
Bi urte barru ikusi baietz  
automobillak Urbian!
- 14/ Naparroa, Araba eta  
Gipuzkoa ta Bizkaiak  
beti zapaldu izan dituzte  
sortu zaizkien etsaiak;  
gure errian jaiotzen baidira  
seme argi ta alaiak!  
Nola ez alkar ondo maitatu  
izanik laurok anaiak?
- 15/ Partzoneriko (2) Jaun aundi oiek  
goratutzen badet lana,  
oiek eman dute Euskalerriko  
onbiderik ederrena,  
legez da bidez buru dutela  
Segurako alkate jauna:  
Birjiña Amak ordainduko die  
euren erakutsi ona.

16/ Maisu azkar bat nola bear zan  
eleiza egiteko artez,  
Marzelo Gibert Jauna agertu zan  
gogoz eta borondatez:  
eleiza txukun atera zaio  
jakintsu askoren ustez:  
Urbiako zelaian dirudi  
zaiñ artu zuala berez (3).

17/ Maisu Jaun onek bere neurriak  
atera zituan ariñ,  
ermitatxo au nola bear zan  
aire ederrean egin,  
Birjiñarentzat kaiolatxo au  
itxuran bai du eragin,  
Jesusen Ama artzai tartean  
atsegiñez bizi dedin.

18/ Beobidetar Juliok egin du  
limosna eder bikaña:  
iruditxo au du bialdu  
berak bere eskuz egiña:  
ortxe bidean batek esan du  
eztala oso apaña (4):  
a herritsua! Barrendikan da  
ederra Ama Birjiña.

19/ Egokizko lanaldi ederrak  
Urbian egin dirade,  
Euskalerriko seme zintzoak  
pozez txoratzen gaude!  
Ermita berri au nundi sortu zan  
iñork egiten badu galde,  
erantzun leike fundatzallea  
dala Aita Lizarralde.

20/ Diputazio, Ayuntamentu,  
Obispo Jaun da Apezak,  
oien eskuan dago kentzea  
Probintzietako gaitzak;  
guk beartsuok indar aundirik  
ez daukagula deritzat:  
degun almena opari onez  
agertuko degu beintzat.

21/ Beartsu nere lagun maiteak,  
oraintxe nator zuengana:  
mundu onetan guk egin bear  
beste batzuek nai dutena;  
gogo onekin egiten badegu  
orain otoitza ta lana,  
guztion Aitak emango digu  
zeruan silla bana.

22/ Agur Maria graziazkoa  
 Amatxorik goxoena,  
 Zureganako daukagu beti  
 guk geure itxaropena!  
 Mundutar guztiai eskatzen diet  
 uts egiñen barkamena;  
 onenbestekin isiltzen da gaur  
 Arantzazuko aitona.

---

(1) **Arrera.** Kanta-paperan **arrena** dio, baiña oker. Grazianok dionez, **arrrera** bear du.

(2) **Parzoneria.** Urbiako zelaietan ganadua sartzea libre duten erriak osatzen dute Parzoneria. Alkartasun edo olako zerbait adirazi nai du izen orrek.

(3) **Zain artu zuala berez** = bertan berez ernetakoa bezela dirudiala. Grazianok dionez, Aita Lizarraldeak berak esan zion pentsamendu au bertsoetan sartzeko.

(4) **Eztala oso apaña.** Izan ere, Beobide jaunak egindako imajiña onek izan ditu bere goraberak. Erriaren gogokoa eztala-ta, luzaroan egon da baztertua. Orain berriz dago bere lekuan, Urbiako ermitaren aldarean, alegia.



## NEKAZARITZA GORATUAZ

*Auek dira Arantzazuko errebistan Grazianok atera zituan leenbiziko bertsoak. Ikus "Aránzazu" XXV (1945), 214-215. Etxaun-ek "Oi laborari gaxua"-n esaten dituanakin ba-dute antz pixka bat. Kaletarren kontra botatzen dituan zirtoak bati baiño geiago min eman zioten, eta Arantzazura erruz etorri ziran erantzunak. Baita errebistan agertu ere batzuk, ondoren ikusiko dan bezela.*

1/ Izen ederra, nere kristauak,  
euskeraz nekazaritza,  
lanbide ortan bizi geranok  
orpotik tira gabilta,  
nekien puruz nola datorren  
lurra dakarren emaitza,  
arrazoi aundiz baserritarrai  
nekazaria deritza.

- 2/ Biarrerako neurrigabea  
baserritarren eguna:  
izar argitan goizean jaiki  
—ez da bizitza leguna—,  
egun guzia atsedean gabe  
eldutzen da gau illuna,  
beti tarea bukatu gabe,  
buruz-gain eginkizuna.
- 3/ Gure izardiz jan bear dute  
munduko alper guztiak,  
nola diraden lureko pizti  
ala aideko egaztiak;  
oriek baño okerragoak  
bi oñetako trastiak:  
danok loditzen larri gabiltza  
gu nekazari tristiak.
- 4/ Kale-gizonen lan eguna da  
zortzi orduko taria,  
ala ere askok esaten dute  
dala oraindik geiegia.  
Baserrikoa amasei-re egin  
agitz bukatu gabia;  
ala ere askok ondasunetan  
nai dute igualdadia.

5/ Baserritarrak diru apur bat  
jartzen du Caja-Ahorrosian  
bere umien errukiz edo  
zartzarorako pozian;  
alabak ere dote gabiak  
aitak au egin ezian,  
kaletar asko minduko dira  
ori ezin ikusian.

6/ Kale-gizonak illuntz aldera  
asten dira zurrutian,  
gau erdiruntza kafe ta kopa  
igual gero tutian,  
jaiki ezin-da, poltsak arin-da,  
buruak astun goizian;  
orla bizi-ta gaitza da jartzen  
dirua Caja Ahorrosian.

7/ Kalian ere batzuk dira  
leialak eta zuzenak  
goiz-arratsetan or baratzetan  
bearra egiten dutenak,  
gabian zintzo erretiratu,  
etxian ejemplo onak;  
parranderuok, aditu ondo  
aiek dirala gizonak.

8/ Baserritikan irteten dira  
jan gauzarikan onenak:  
arrautz, ollasko, gaztai, arkume,  
kapoi ta txekor gizenak;  
kaletarrai opa diztegu  
guk orrelako gauz onak.  
Kalian ala agertzen dira  
tripotx aundiko gizonak.

9/ Zenbait kaletar ikusten dira  
guri eta borobillak,  
okotzak iru zapaldatan da  
kokotian ere mallak;  
gu nekazari gizarajuok  
argalak eta zamillak,  
bizkar ezurren ortzetaño  
ezkutaturik urdallak.

10/ Zer ondamena ekarri digun  
apainduri ta jantziak!  
Ikusten danez ez du balio  
dirua irabaztiak;  
zapatero ta pelukero ta  
modista eta sastriak...  
orien bidez ondatzen dira  
baserritako gaztiak.

11/ Tabernero ta pastelero ta  
ortz-gille (1) ta denderuak...  
Oriengandik sortutzen dira  
familiko enreduak,  
sal-eroslien ofiziyua  
engañatutzen txoruak.  
Erlijioa indartutzeko  
oiek al dira moduak?

12/ Gizon guziok ezautzen gera  
bakoitza bere izenez,  
tranpalariak iñola ere  
ez dabiltz bide zuzenez;  
sal-erosliak egiten dute  
—argiro ikusten danez—  
baserrikoai arrapatu ta  
kaletarrai eman ez.

13/ Arantzazuko Birjiña Amari  
eska zaiogun gogoti  
erregutzeko Jaungoikuari  
beartsu guziok gati,  
eta gafierra sinismen onez  
esan deikiogu beti  
oker guztiak zuzendutzeko  
elorriaren gafieti.

14/ Alkar maitatzen bizi gaitezen  
kale eta baserriak,  
oiek dirade Jaun zerukuak  
jarri zizkigun neurriak.  
Ta Gezaltzako aitona zarrak  
esan ez baditu egiak,  
nai dutenian erantzun beie  
kaleko hertsolariak.

---

(1) **Ortz-gille** = dentista.

## “BASARRI”-K GRAZIANO-RI

*Aurreko bertsoei erantzun zutenetik bat, “Basarri” ospetsua izan zan. Izan ere, urte aietan estu ta larri-xamar bizi zan kaleko jendea, eta erruki gabe aei eztena sartzea geiegitxo zirudin. “Basarri” bada, kaletarren estuasunak kontatzera dator.*

*Bertso auek Arantzazuko errebistan agertu ziran. Ikus “Aránzazu” XXV (1945), 306-307.*

I/ Nere lumatxo maitagarria  
estali ez dedin erdoiz  
aitona batek bide oberik  
etzidan jarriko ifioiz.  
Ta Gezaltzako Grazian jauna,  
jakin bear dezu garaiz,  
“Basarri” deitzen didate danak  
bafia kalean bizi naiz.

- 2/ Zure bertsotan egi asko da,  
ori ez det ukatzen nik,  
baserrietan ezta paltatzen  
neke gogorreko lanik.  
Egin ezean ezin itxaron  
lurrak emango duanik,  
baña kalean ere ez pentsa  
eztitan bizi geranik.
- 3/ Langillearen gaurko bizitza  
gaitza da kanpoztu neurtzeko,  
probatu bear luteke askok  
eskarmentuan sartzeko.  
Bat emateko baldin badago  
iru an daude artzeko,  
zer alderdia Caja Ahorrosean  
mordo aundiak jartzeko!
- 4/ Etxeko errentak igoak daude  
lengo lautatik zortzira,  
ur eta argi, Jaunak ba-daki  
zenbat dijoan guzira!  
Jan eta jantzi egin bear da,  
ta... ain irabazi gutxi da,  
baserritarra orrenbesteko  
kezkarik gabe bizi da.



- 5/ Egun osoa lanean egin;  
amabost pezta etxera.  
Emaztea ta iru-lau aurren  
jabea baldin bazera...  
Zoaz aiekin arategira  
libra xerra eskatzera,  
ta afal ondoan txukun jantzita  
kafe ta kopak artzera.
- 6/ Ollasko, gaztai, arkume, kapoi,  
txekorrak tarte sartuta,  
"Aitaren" egin bear degu maiz  
prezioak galdetuta.  
Dozenatxo bat arrautzegatik  
ogei pezta eskatuta,  
porruen billa dijoaz asko  
gerrikoak estututa.
- 7/ Gaur iru zapaldatan ez daude  
langillearen okotzak;  
gerri mea, ta gorputz arifia,  
begitarteak zorrotzak;  
udaran koipe beldur gutxi ta  
neguan il bear otzak,  
geio zulatu bearrik eztu  
gaitz oiek dauzkan biotzak!

8/ Geien geienak ditugu emen  
erru eta pekatuak.  
Eskuak biotz gañean jarri:  
ondo atera kontuak.  
Peri ta dema, joko, billera,  
ta gañontzeko tratuak,  
baserrietan ere guziak  
eztira oso santuak!

9/ Goazen Amatxo onarengana  
kaleko ta baserriko,  
gorputz-animak bear dutena  
eskatzera belauniko.  
Gure lurreko uskeri abek  
nola diran egun biko,  
bere laguntzaz gero zoriontsu  
izan gaitezen betiko!

10/ Ez gaitezela beintzat ibili  
alkar ezin ikusian,  
pizti gaiztoak ibiltzen diran  
era trakets itxusian.  
Ikusten dana agertu dizut  
gutziz maitasun bizian,  
ezertan naigabetu bazaitut  
barka zaidazu, Grazian!

## LANGILLE BATEK GRAZIANO-RI

*Au ere Arantzazuko errebistan atera zan. Ikus "Aránzazu" XXV (1945), 307-308. Ez-takigu egillearen izenik, baiña kaletar eta langillea dana bistan da. Zenbat goibera izaten dira munduan! Urte aietan kaleko langilleak estu ta goseak zebiltzan, baserri-tarrak berriz irabazi politak egiten zituzte-la. Geroztik gauzak beste aldera jarri dira. Urte aietako ispillu jator bat utzi digu lan-gille onek bere bertsoetan.*

1/ Arantzazuko Amak lagunduz  
orain nai nituzke jarri  
Grazianori erantzunikan  
bertso berri bat edo bi.  
Lenengoa bukatu ezin-da,  
Ama, emen nabil larri,  
gai ontan aurrera jarraitzeko  
arren, egidazu argi.

2/ Egun danetan entzuten degu  
nagusiaren deadarra,  
bear aña lan ezin degu egin  
falta zaigulako indarra,  
etxera joan da andrea asarre  
gañera ume negarra.  
Min artu degu baserritarrak  
orain burla egin bearra.

3/ Erropa zarrak, dirurikan ez,  
sarri askotan gosiak,  
aspaldi ontan orrela gabiltz  
kaleko fabrikantiak.  
Artu ditugu bertso berriak  
ejenplo onez betiak:  
obe izango zun bial balitu  
gaztai eder ta egaztiak.

4/ Ez uste izan kaleko andrak  
galdu dutela lotsia;  
arrazoiaekin dabiltz asarre  
utsik dauke ba poltsia,  
ezertarako ez da irixten  
gizonen irabazia.  
Gosiak dabiltz: arrazoizkua  
umearen garrasia.

5/ Arotzak dabiltz tellatu puntan,  
argiñak etxe fatxadan,  
pioiak berriz arri jasotzen  
pikatxoia edo palan,  
beste askok erabilli bear  
burnien salda kaldaran:  
ez uste izan berdin danikan  
arto-jotia ganbaran.

6/ Orain-aldian kalia gabiltz  
gura beste ogi barik (1),  
diru gutxigaz dabillenenzat  
ez bai dago estraperlorik.  
Garia karu, merkatu ezin  
panaderuak ogirik:  
danok dakigu kale aldian  
artzen ez dala garirik.

7/ Gure denbora dana lanian  
—gaztetan gendun ba ikasi—,  
mundua danentzat egiña da,  
guk ere nai degu bizi.  
Baso erdi bat edaten degu,  
ori ere ezin ikusi;  
langille fiñak ez badu biar,  
iñork ere ez du merezi.

- 8/ Baserritarrak esaten dute  
arrokeri aundiakin:  
"Naikoa diru eginda gabiltz  
gaurko estraperloakin".  
Arro dabilta, errukirik ez  
kaleko gixaxuakin:  
negozio ori ez dala libre  
oiek bear dute jakin.
- 9/ Aitona zarrak lan egin zuten  
zelaian eta mendian  
aiek joan ziran dana utzita  
seme zarren izenian:  
dana beretzat, besteik ez balitz  
bezela aldamenian:  
askon diruak nola diraden  
ondo gaude jakiñian.
- 10/ Baserritarrak darabilte orain  
tratua eta saltzia,  
zuzen edo oker dirua egin  
galdurik kontzientzia;  
guk kaletarrok ez degu ezer,  
ori da diferentzia;  
baña oraindik gurekin degu  
zerurako esperantzia.

- 11/ Gau eta egun diru ametsa,  
"Caja de Ahorros" buruan,  
asko dirade Judas bezela  
diru zaliak munduan;  
Kristo etzala izan orrelakoa  
euki dezagun goguan:  
bere laguna zan Judas bafia  
apenas dagon zeruan.
- 12/ Erropa onenak soñian eta  
arrokeria buruan,  
egun danetan kalera datoz  
Jaun aundi baten moduan,  
igartzen diegu zer izango dan  
oien etxe inguruan:  
txitxiña pranko tellatuan da (2)  
ziar-belarra soruan.
- 13/ Sarri askotan ikusten doguz  
erri-plazara bidian  
baserritarrak automobillan  
edo astotxo gañian;  
kaleko jende gizarajuok  
gaude ondo jakifian  
zuen esnia ez datorrela  
bedeinkatu bearrian.

- 14/ Baserrian da kaliaz ere  
gerade guztirakoak,  
danak ez dira berdin bizi ta,  
entzun au mayorazkuak:  
ugazabari eraman bear  
arrantza ta ollaskuak,  
baserrin ere or dabiltz larri  
errentero gixaxuak.
- 15/ Aloñako Ama onari eskerrak  
badegu naikua suerte,  
bizitzeko lain zuzentzen degu,  
osasunez berriz puerte.  
Urte askotan zure baserrin,  
aitona, bizi izan zaite,  
kaletar onek eskeintzen dizu  
bertsoren bat edo beste.
- 16/ Nere biotza goruntz jaso ta  
bukatzera nua, jaunak,  
goian dirade izar da eguzki.  
gorago len joan ziranak.  
Antxe daukagu zeru eder bat,  
arako egin gure lanak.  
Iñokin ez det asarrerik nai,  
barkatu gaizki esanak.

---

(1) **Barik** = gabe.

(2) **Txitxiña** = itokiña. Oñati-aldean esaten da.



## KALETAR BATEN ERANTZUNA GRAZIANO-RI

*Auek ere Arantzazuko errebistan azaldu ziran. "Aránzazu" XXV (1945), 308-309. Egillearen izenik ezta kigu. Baserritarrak egin oi dituzten tranpak salatzen ditu: esnea bedeinkatzea, arrautza ustelak onakin naste salgai jartzea, ta abar.*

1/ Zuk egindako bertso berriak  
irakur dituanean  
lagun aundi bat erantzun nairik  
jarri zait aldamenean.  
Nik esan diot aiton zarrari  
uzteko here pakean,  
nekazariak asarratzea  
etzaigula on klean.

2/ —Baserritarrak zer diran dakit,  
(berak esan dit ausardiz).

Zerbait esaten asteko ez det  
esan bearrik bi aldiz.

Taju gutxiko bertsoak, bafia  
osatu nai ditut egiz,  
irakurtzeko gogoia dunik  
iñor baserrian balitz.

3/ Baserrin ziran oitura onak  
kalera zabaldu ordez,  
kaleko txarrak ikusten ditut  
goruntz doazela errez.  
Emengo gaitzaz kutsutu dira  
baserriak zoritxarrez:  
jakin nai nuke zenbat ama on  
dauden penaz ta negarrez.

4/ Azi orduko, ezi baño len,  
kalera datoz alabak,  
orrelakontzat alperrik dira  
amaren ondo esanak;  
baserrian lez (1) kalean ere  
ajolik gabe diranak,  
zori txarrari iges egiten  
badituzte naiko lanak.

5/ Gizon galantak mendi aldetik  
zerbait dala-ta errira  
jan-edanera beste lan gabe  
geienak etortzen dira.  
Zuk uste dezun bezela oso  
langille onak balira,  
ez legozteke ao zabalik  
txorakeriai begira.

6/ Alper izena erantsi naia  
kaleko langilleari,  
ez al dakizu neguan ere  
uzten ez diola lanari?  
Orduan dago baserritarra  
txistu joka ta kantari,  
negu ta elur danean lana  
zenbat ordutan du ari?

7/ Zuk diozunez, baserrin dago  
kaletarrentzat bizia:  
arrautz, ollasko, ta gaffierako  
bearreko dan guzia.  
Ezin ukatu, ori ala da;  
bafia dator ain gazia...  
Ortik ez uste irabazterik  
Jaungoikoaren grazia.

- 8/ Eleiz lanetan oitua dago  
baserritako jendea:  
kaletarrentzat bialtzen dute  
bedeinkatua esnea.  
Baña elizak orretarako  
baimenik ez du ordea...  
Ez al litzake obego emen  
nai dunak bedeinkatzea?
- 9/ Kanean ezik baserrin ere  
ardo zaleak badira,  
jai-mezatatik etxera gabe  
astelenean perira,  
txapela galdu, belaunak auldu,  
zutik egon ezin dira...  
Lanean gogoz asiko bada  
asteartean begira.
- 10/ Sasi-letradu ta sendatzalle  
pizti zuzenik bada or;  
eskeintzen dana artzeko gertu,  
ematekoak utzi zor.  
Ijitoakin ondo konpondu,  
trukean asto ta beor,  
urte guzian egun askotan  
aitzaki gutxikin opor.

11/ Gaztain ustelak tartean sartu,  
intxaur ariñak ere bai,  
lokan azpiko arrautz ustelak  
onakin nastuta salgai;  
ollo gaixotuk, bei ajeatuk  
nori sartuko dizkan zai:  
Caja Ahorros-en jarri nai bada,  
ara dirua nola nai.

12/ Baserritarren itxusikerik  
azaldu baditut emen,  
ez datoz gaizki, asko buruzgain  
arrotugiak bai-zeuden.  
Bide ortatik jarraitu gabe,  
makurtu bada lenbaitlen,  
gero zer dagon gogoratuta  
garaiz damutu zaitezten.

13/ Eska deiogun biotz-biotzez  
Arantzazuko Amari  
zuzen gaitzala, eta laguntzak  
eman deizkigun ugari.  
Kaletar eta baserritarrak  
ez egin gaitzik alkarri,  
eta guztiok izan gaitezen  
Jesukristoren gudari.

14/ Barkatu miñik eman badizut  
bada nik esandakoa  
etzan besterik zure deiari  
erantzuteko asmoa.  
Orra nik beste amalau bertso,  
onekin azkenekoa:  
onen bitartez bialtzen dizut  
agur bat biotzekoa.

---

(1) **Lez** = bezela.

## GOSEA BAI TA OGIRIK EZ

*Ogi-ezaren sustraia nun arkitzen dan esaten digu emen Grazianok. Jainkoaren zigorra degu guzti ori, bere ustez. Gaurko gazteen oitura txarrak, neskatzan moda txorok, otoitserako zabartasuna, ta abar, aipatzen ditu. Beste zintzotasun bat zegoan leen. Ziñez, begitan artuak ditu Grazianok gaurko berrikeriak.*

*Bertso auek ere Arantzazuko errebistan atera ziran. "Arantzazu" XXV (1945), 329-330.*

- 1/ Ogirik eza nundik datorren  
aditu bezate danak:  
begira nola betetzen diran  
gure Egillen esanak.  
Utsune asko ditugulako  
izateko kristau onak,  
albiste ori bialtzen digu  
guztion Jabe dan Jaunak.
  
- 2/ Danok dakigu nolakoa dan  
Jaungoikoaren legia,  
agindu zigun eskatutzeko  
eguneroko ogia.  
Otoitzerako ain zabartua  
dago gaurko gizadia,  
apaltasuna oñazpian da  
buruzgain arrokeria.
  
- 3/ Bizimodua zintzogoia zan  
gu gaztetxo giñanian:  
egunsentian otoitz egin da  
asitzen giñan lanian.  
Parrandarikan etzan izaten  
jaia eldutzen zanian:  
jolas arriñak, eta etxera  
zintzo illunabarrian.



- 4/ Apalondoan agurtza esan  
ta lotara zuzenean:  
gaurko gaztiak irtengo dira  
gu sartzen giñanean;  
radio, zine, dantza ta jolas  
or dabilta gau danean:  
asko lotara etzingo dira  
gu jaikitzen giñanean.
- 5/ Gaur galdua dijoan orrek  
egunsentiruntz oera,  
maindirepian igaroko du  
eguzkian etorrera.  
Bizimodua joango zaio  
amilka aldapa beera,  
begiak illun, sakela zimur,  
eta urtiak aurrera.
- 6/ Gaur zenbait mutil oituraz eta  
jazkeraz danak aundizki,  
aurrekoari jarraitutzeak  
bakoitza larri dabilki.  
Otoitzerako gogorikan ez,  
eta sakelak irazki,  
lapur bildurra kendu ezker  
etzegok mutilla gaizki...

- 7/ Begiratuaz gaurko neskatxak  
nola litezkean bizi,  
bakoitzarentzat pintatzalle bat  
izango litzake gutxi.  
Egiten duten pauso bakoitzan  
zapatak atzera utzi,  
eta ondoren datozenairi  
orkatxiñak (1) erakutsi.
- 8/ Txori-malotzat (2) jazten dirade  
oñetaraño buruti,  
erotegira eramateko  
ez dabiltz oso urruti;  
beren buruak itxusitutzen  
saiatzen dira gogoti,  
igarri gabe eman leizkie  
suzko botoiak (3) orpotik.
- 9/ Ikusten degu nolakoa dan  
gaiztakerien emaitza,  
baztar danetan zabaldu zaigu  
ortatik datorren gaitza.  
Toki askotan gaur artutzen da  
lotsagarritzat otoitza,  
gosea bai ta ogirik gabe  
argatik dabil bakoitza.

10/ Begira ondo, gazte alai,  
zein bidetatik zabilten,  
txorokeritan gau ta gau-erdi  
arria (4) etxera biltzen.

Ogia ezik artoa ere  
asi zaizkigu urritzen,  
urte onikan datorrenikan  
neri etzait iruditzen.

11/ Gaurko umiak asmatzen dute  
makiña bat aitzakia,  
eztakit nola etorri zaigun  
ain gaztedi eltzakia (5).

Ogi xamurra eman ezker  
gero nai dute jakia (6).

Ia Jainkuak egiten digun  
dana kenduta pakia.

12/ Aita ta ama zapaltzen ditu  
seme-alaben pisuak,  
zartzarorako ez datozkigu  
bizi-denbora gozuak.

Etxe askotan umeak buru  
ta mendean gurasuak,  
ez dakit nora elduko diran  
gaurko gaztien pausuak.

13/ Esker txarreko seme-alabei  
goazen danok erakusten  
gurasoakin dauzkaten zorrak  
nola betezen dituzten.  
Aita ta ama ondo maitatzen  
ez badezute ikasten,  
orain zabilzte zartzarorako  
ordain beltzak irabazten.

14/ Mundu guztia nola jarri dan  
gaiztakeriaz betea!...  
Ez dakit nola ibilliko dan  
Jainkuan borondatea.  
Askok nai dute biar dutena  
eskatu gabe ematea;  
bide ortatik zail izango da  
naikoa ogi jatea.

15/ Goazen guztiok negar egiñaz  
gure Jaungoikoagana,  
damutasunez aitortutzera  
oker xamar gabiltzana.  
Egun danetan eska zaiogun  
—au da lenbiziko lana—,  
utsune gabe eman deigula  
bear degun jan-edana.

16/ Beartsuaren bizimoduak  
 baditu amaika trango (7),  
 Jainkuak ere eskatu gabe  
 ez digu asko emango.  
 Au baiño egi mardulagorik  
 aitonak ez du esango:  
 otoitza egin nai ez badegu  
 ogirik ez da izango.

---

(1) **Orkatxiña** = orkatilla. Oñati-alde ontan esaten da.

(2) **Txori-malo** = espantapájaros.

(3) **Suzko botoiak** = botones de fuego. Lengo medikuak ematen zituzten, orain inyezioak ematen diran bezela.

(4) **Arria** = "bere buruarentzat kaltea".

(5) **Eltzakala** = eldugabia.

(6) **Jakia**. "Jakia da ogia jan-erairteko edozein gauza" (Graziano).

(7) **Trango**. "Tranguak dira baso-bidietako goi-berak, bide latzak, orain potoluak eta urren-go arri-maillak" (Graziano).

## “CAJA DE AHORROS”-EN OMENEZ

*Andres Igartua jauna, Arantzazuko auzoko semea (Arrikruzko baserrietakoa), Caja de Ahorros-en zegoen inspektore. Onek zirikatuta-edo, asmatu zituen Grazianok bertso auek, eta gero jaun ark bertso-papere-tan argitaratu zituan, erdal itzulpen da guz-ti. Asko zabaldu omen ziran peritan ta abar. Bertso-paperak oar au dakar: VI-1946. Urte orretakoak dira, beraz.*

*Ziñez, Grazianok etzuan asko zirikatu bearrik Caja de Ahorros-a goratzeko. Berez ere beti izan baita zuurra, lan gosea, eta di-rua ondo zaintzekoa. Gazteak bere eskola ontara ekartzen, or ditu lanak gure aitonak. Bein baño geiagotan erantzun lotsagabe au ere aditu bear izan du: “Zuek tontoak bazi-ñaten, guk zer degu zer ikusirik?”...*

1/ "Beartsua" da berez  
izen arlotia.

Eta ainbeste seme  
pobre egotia,  
izanik ain xamurra  
gaitz ori kentzia!  
Naikoa da aitonari  
itz bi aditzia.

2/ Aberatsa izatia,  
askoren ametsa;  
pobrien gaitza beti  
dirurikan eza.  
Beartsu guziontzat  
bizitzeko poza,  
orra nun dadukagun  
Caja de Ahorros-a.

3/ Askok dakitena da  
nerau gaztetik  
nitzala pobriena  
beste danetatik.  
Caja de Ahorros-era  
asi nitzanetik,  
naiko diru daukat  
noranaiko beti.

4/ Aldiko diru asko  
ez dago zer jarri,  
obe da eramatea  
gutxi baña sarri.  
Lenari kendu gabe  
gañetik ezarri:  
au egin bear degu  
kale ta baserri.

5/ Aldiko pezeta bat  
zuzendutakoan,  
Caja de Ahorros-era  
lenengo pausuan.  
Jartzen bada tabernan  
edo estankoan,  
ori da gordetzea  
zulodun zakuan.

6/ Nai duanak dirua  
xamur ugaritu,  
Caja de Ahorros-ean  
gordetzen jarraitu.  
Ez dakiten guziak  
aitonai aditu,  
erreditu ederrak  
ark ematen ditu.



7/ Bein an jarritakoan  
bere oinarria,  
uraxe da beartsu  
danen pozgarria.  
Sekula agortutzen  
ez dan iturria,  
bere bizi guztiko  
bereko etorria.

8/ Asko dira pizkorrak  
norbere iritxian,  
sinismen gabekoak  
besteren itzian.  
Beiak antzu oi dira  
askotan etxean,  
baña beti ernari  
Caja de Ahorros-ean.

9/ Itz bat esango diet  
orain artzaieri,  
oiek ere badute  
zenbait panparreri:  
artaldian oi dira  
antzuak ugari,  
baña Caja Ahorros-ean  
guziak ernari.

- 10/ Sinistatu zazute  
nik esan bezela,  
Caja de Ahorros-a  
aberatsa dala.  
An urte guzietan  
arkume ta txala,  
ango nausia ez da  
artzaia makala.
- 11/ Danok goratu itzagun  
Diputadu jaunak,  
baita ere ordezkari  
or daduzkagunak.  
Beartsu gaxoentzat  
oik dira lagunak,  
ugaritzen dituzte  
gure ondasunak.
- 12/ Mutil gazte bazera,  
ez izan txorua,  
ederki bizitzeko  
ara emen modua.  
Beartsu izatea  
dezu segurua,  
ematen badiozu  
aizeai dirua.

- 13/ Oinarria badezu  
Caja de Ahorros-ean,  
or dezu maitalea  
zure biotzean.  
Laster izango dezu  
ori somatzean,  
dirua eskuan da  
andrea etxean.
- 14/ Sabel-barrengo miña  
amaikatzok badu,  
gaztetatik asita  
ori egin balu.  
Nola esnatu ziran  
ortarako belu,  
argatik daude orain  
mutilzar kaskelu (1).
- 15/ Txorakerin bazabiltz  
parrandan gabeen,  
zure diru xamarrak  
dijoaz aidean.  
Aien erreditua  
biaramonean,  
kaskarreko miña ta  
tulunak etxean (2).

- 16/ Neska gazte bazera,  
oraintxe esnatu,  
jantzi lotsagarritan  
dirurik ez gastatu,  
Caja de Ahorros-ean  
gordetzen saiatu,  
nai badezu sasoian  
senar on bat artu.
- 17/ Nola ibilleran da  
baita ere jantzian,  
beti agertu zaite  
kristauen antzean.  
Dote ederra badezu  
Caja de Ahorros-ean,  
mayorazko galantak  
or dituzu atzean.
- 18/ Naiz ezkonduzeko  
asmorik ezian,  
argitakoa jarri (3)  
Caja de Ahorros-ian.  
Asmo ona badezu  
zure biotzian,  
moja sartuko zera  
nai dezun tokian.

19/ Aize buru bazera  
gazte gaztetatik,  
uskeritan dirua  
gastatzen gogotik;  
laguntzik ez badezu  
Caja de Ahorros-etik,  
neskazar bear dezu  
sekula ta beti.

20/ Bizi bazera, gizon,  
egun-jornalean,  
dituzun diru danak  
ez artu aldian.  
Asteko irabazia  
jasotzen danean,  
duro pare bat jarri  
Caja de Ahorros-ean.

21/ Bizio txarrak daude  
ainbeste ugalduta,  
apainduri, tabako,  
lujo ta txurruta.  
Sakelak utsik eta  
gorputzak aulduta,  
beren bizimodua  
betiko galduta.

22/ Saiatutzen diranak  
nere esanian,  
ongi izango dira  
bizitza danian;  
jarraitzen dutenak  
Caja de Ahorros-ian,  
maite izango dute  
aitona Grazian.

---

(1) **Kaskelua** = ajolakabea, ezertarako fundam-  
menturik eztena.

(2) **Tulunak** = aserreak. Kanta-paperan **zulu-  
nak** dio, baiña Grazianoren iritziz, **tulunak** bear  
du.

(3) **Argitakoa** = argitarako elizan ematen dan  
dirua. Aurrerako, gerorako gordetzen dan dirua  
edo olako zerbait esan nai du emen.

## GRAZIANOK "BASARRI" JAUNARI

*Gorago ikusi ditugu Basarrik eta langille batek eta kaletar batek Grazianori egindako erantzunak. Orain bada, bere burua zurituz eta Basarriren erantzunari erantzunaz ari da Graziano. Berak dionez, kaletarren kontra egindako bertso aietan bera etzan jornalerekin ari, kalean bizi diran beste zenbaitzuekin baiño: salerosle, tabernari ta beste olakoekin.*

*Ikus "Aránzazu" XXVI (1946), 18-19.*

1/ *Basarri jauna goian daukagu  
euskaldun jator geranak,  
itz neurtukin garaitu ditu  
probintziko seme danak.  
Nere bertsoai jarri ere bai  
erantzunik ederrenak;  
gure txapeldun ospetsu oni  
zorion asko aitonak.*

2/ Esan diguzu *Basarri* izenez  
kalian zerala bizi,  
nik aditu det baserri baten  
zifiala jaio ta azi.  
Orra or bertan argi ta garbi  
nun dezun adierazi  
alper bizkorrak juten dirala  
nekazaritzan igesi.

3/ Gure nekiak alperrik dira  
iru golpe bai lautati,  
laugarren ori biar bezela  
ez da baliatzen beti.  
Etsairik asko sortutzen zaigu  
alderdi guzietati,  
al duten dana kentzen digute  
nekez artzen deguneti.

4/ Euskalerriko jakintsu danok  
neri aurka emen dira,  
jornaleruen ezbiar danak  
botatzera arpegira.  
Orien alde nere errukia  
zein dan jakindun balira,  
danok igesi jungo lirake  
erbeste txit urrutira.



5/ Nola diraden ain ezberditiak  
kaleko bizi-bideak,  
batzuentzako ezti gozotan  
diran naiera guziak;  
jornal-erdiko langillientzat  
gose ta atsekabiak,  
negar egiñaz galdetzen dute  
nun diran agintariak.

6/ Nola kalia ez diran bizi  
jornaleruak bakarrik,  
orien bizkar ni zirikatzen  
danok datozte alperrik.  
Lantegi-nausi, arakin eta  
dendari ta tabernarik  
zeiñen izerdiz loditzen diran  
ez digu esan *Basarrik*.

7/ Sal-erosliak dira munduko  
biartsuen galgarriak,  
trepetxu (1) onak ditugu oiek  
sendatzeko elbarriak;  
beren eskuan prezia ta  
pisuak eta neurriak...  
Oien bitartez ondatzen gera  
kale eta baserriak.

- 8/ Bizimodua ikusten degu  
ainbesteraño nastuta,  
len biartsuak ziranik asko  
polliki aberastuta,  
enbusteriz da gezur apainduz  
besteri poltsak ustuta,  
tripotx aundia ez da irtetzen  
aiziarekin puztuta.
- 9/ Txekor gizen da arkume guri,  
ollo eta ollaskuak,  
gaztai goxo ta kapoi galantak  
eta arrautza preskuak,  
jornaleruak ezin erosi,  
ez ba-ditu berezkuak:  
oiek guziok jaten dituzte  
gañetiko morroskuak.
- 10/ Aurpegia du ispillu eta  
mingaña kanpai biotzak,  
alperrik bere bizimodua  
ukatuko du bakoitzak;  
jornalero ta nekazariok  
atze-aurriak zorrotzak,  
beste mutilok zapalda maillaz  
kokote eta okotzak.

11/ Jaun zerukuak nai dualako  
dago baserria zuti;  
Birjiña Amak zaindutzen gaitu  
gau ta egun bere eskuti.  
Etsai ugariz josita ere  
inguru guzietati,  
nekazaria nekien puruz  
guzien ongille beti.

12/ Zure erantzun maitagarriak  
ni ez naute naigabetu.  
Txantxa benetan bertso lanetan  
ez daukagu zer barkatu.  
Zu neregana etortziakin  
ainbesteraño naiz poztu,  
biotz nereko *Basarri* jauna,  
Grazianekin ez aztu.

---

(1) **Trepetxu** = tranpaz betea, arrapatzailea  
(Graziano).

## LANGILLEARI ETA KALETARRARI ERANTZUNA

*Gorago jarri dira langille batek eta beste kaletar batek Grazianori egin zioten erantzun bana. Erantzun aien erantzuna da oraingo au. Beren izena gordeaz etorri ziralako, zigortzen ditu Grazianok.*

*Ikus "Aránzazu" XXVI (1946), 42-43.*

- 1/ Munduan ez du ibilli biar gorde-gordeka gizonak, kristau zuzenik ez du lotsatzen sekula bere izenak. Lotsaz bezela anonimuak bidaldu dizkigutenak, asmo okerrik ez badaukate ez dira tresna zuzenak.

- 2/ Asieratik egin diguzu  
jornalero baten planta,  
nik ere zure soñua nola  
ala egin biar dantza.  
Zure bertsoai ez diet artzen  
langille piñaren antza,  
seguruago izango zera  
alpertzarren bat galanta.
- 3/ Nekazariok dantzatutzeko  
ez dezu akullu motza,  
illunetati zirikatzeke  
eztena ere zorrotza.  
Bertso oietan zure izketak  
badu katoliko otsa;  
bafía mingafía bezin beroa  
ez dakit dezun biotza.
- 4/ Arria tira eskua gorde,  
ez dakit zertan zabiltzan;  
dotriña ori ez da ikasten  
Jesukristoren elizan.  
Etorri izan baziñan garbi  
*Basarri* jaunaren gisan,  
bazkari on bat danok egin da  
zuen adiskide nintzan.

5/ Ume-negar da erropa zarrak  
zatoz nolabait azpiltzen,  
itzak obeto ausnartu gabe  
ez dakit zertan zabilitzen;  
egia esan nai bazenduke  
emen gauzkazu aditzen,  
zenbait langillen seme-alabak  
nola jantzita dabilten.

6/ Guraso zarrak nolabait eta  
ondorengoak apañak,  
inpernutarrak diruditela  
azkazal eta ezpañak;  
txukuntasunez artu nai dizte  
aberats guziaz gafiak,  
jornal txikia goratutzeko,  
a zer alderdi bikañak!

7/ Aprobato bat egingo balitz  
taberna danak kenduta,  
kaleko gizon gaizto guziak  
laister lirake onduta;  
andre gaixoak ala diote  
begiak malkoz minduta,  
edan-etxian bizimodua  
amaikak ondatzen du-ta.



- 8/ Nekazarien gauza guziak merke saltzen ziranian, kaletarrari nik aditua esaten ago betian:  
"Baserritako jebotzar oiek perira datozenian, potaje ta arto usaia uzten digute kalia".
- 9/ Nere barrenak esaten zuan:  
Oraindik ez da berandu; gure Jainkoak arrokeria makil gabe zigortzen du. Andikan laster egin zien bai potaje usaia kendu, eltziak utsik etxietan da babarik ezin zuzendu.
- 10/ Erakutsi bat onuratsua banatorkizu ematera, orrenbesteko atsekabetan kalia bizi bazera:  
obe zenduke etorritzea mendi-baserri batera, tellatu zarrak berriztatu ta ziar belarrak (1) kentzera.

11/ Ez dituzute zuentzako nai  
neke-lan baserrikuak,  
otz eta bero, euri ta elur  
bizkarretik artzekuak;  
zuen gogoko kutunak dira  
zintzilik ondutakuak,  
bestek jarrita dauden lukainkak  
eta urdai-azpikuak.

12/ Esan diguzu neguan lanik  
ez dagola baserrian;  
ez dakienik iñor badago,  
orra danok jakiñian.  
Parre egiñaz nik esan nuan  
au aditu nuanian:  
gatzik gabeko amaika kaldar (2)  
bazegok lurren gañian.

13/ Basarriko aitak izaten dute  
buru ausitzerik asko,  
bere ondoren nor izango dan  
ofiordeko mayorazgo,  
aurreko zorrai erantzun eta  
aita-amak ondo zaintzeko,  
eta arrazoiz dagokiena  
senideai ordaintzeko.



- 14/ Asko aditzen bizi gerade  
ez dezu esan gutxi ta,  
iñor ez degu zer ibillirik  
aurrera ezin bizita.  
Nola aberastu ikasi degu  
zedorrek erakutsita,  
Caja Ahorros-en dirua jarri  
kalian zorrak utzita.
- 15/ Olo gaxo ta bei ajetuak,  
gaztaña, intxaur da guzi  
piñaren ordezt ustelak saltzen  
nai diguzu irakutsi.  
Badirudi, bai, beste mutillon  
talderin zerala bizi,  
nik ez det uste aiek dutenik  
zuk dezun ainbat malizi.
- 16/ Ikusten danez esniaren gaiñ  
badezu buruko miña;  
ori dana da sal-eroslien  
aldetik datorren griña.  
Nekazaria tranpaz betetzen  
egin dezu alegiña.  
Nora elduko ote zifiñake  
baserrin bizi bazifiña?

- 17/ Zuk diozunez beste munduan  
badezu zure kutuna  
Judas Jesusen saltzaille zana,  
ez oso traste txukuna.  
Arenganako baldin badezu  
orlako maitetasuna,  
zu ere aurki izan zifitezke  
beraren bizi laguna.
- 18/ Caja Ahorros-a ez gera juten  
sobra asko degulako,  
geroko zerbait begiratzia  
danontzat ondo dalako.  
Nekazariak ez du asmorik  
iñori ezer kentzeko,  
partizioa datorrenian  
dana kaletarrentzako.
- 19/ Ama Birjiñak irakutsi-ta  
dauka baxerrikuari  
gauza guziak bere eskuan  
uzteko Jaungoikoari.  
Aitona zarrak esan bearrak  
oraindik baitu ugari,  
kalian dantzan aspertu arte  
jarraitu "fandangoari".

20/ **Bukaera** au ematen dizut  
geroko itxaropenean;  
**Birjiña** Amak zaindu gaitzala  
kristau bide zuzenean.  
**Nai** badidazu aurpegi eman  
**Jainkuaren** izenean,  
zer mutil zeran ikusiko det  
argitan zatozenean.

---

(1) **Ziar-belarra** = "Belar txar-klase bat, asko ugaritzen dana" (Graziano).

(2) **Kaldar** = arazoia emoten eztakiena, egia ikusi ta ala ere ukatu egiten dabena, ori da kaldarra (Graziano).

**"BASARRI"-K GRAZIANORI  
(TXANTXA-BENETAN)**

*Berriz azaltzen zaigu Basarri jauna Gezaltzako aitonari erantzunaz. Izan ere ederra bota zion onek: Bera ere ez ote da gero alperkeriz baserria utzi eta kalera joan diran oietakoa? Ori galdetzen zuen Grazianok. Baiña sei urtekin kalera jetxia dala erantzuten dio Basarrik. Beraz, nekazaritza zer dan jakiteko, etzuen erarik izan.*

*Ikus "Aránzazu" XXVI (1946), 68.*

1/ Lenengo bertsoarekin zatoz  
zorion xamur ematen,  
aitona baten itz ezti oiek  
zer poza sortzen didaten.  
Berri-berriro asi bear det  
nik ere zerbait esaten,  
Arantzazu-ren irakurleak  
pixka bat goza dezaten.

2/ Alper bizkorrak uzten dutela  
baserritako bizitza,  
ori da aitonak bigarren bertsoz  
neri esaten didan itza.  
Sei urterekin jetxi ninduten  
(geroztik emen gabilta),  
artean ezin jakin nezaken  
zer zanik nekazaritza.

3/ Naigabetsu ta gogorak dira  
nekazariaren lanak,  
ta denboraren gora-beretan  
arrixkatu bear danak.  
Askon iritziz eroso gaude  
kalean bizi geranak:  
baserrietan ere badaude  
asko urratzen ez diranak.

4/ Sal-erosle ta nagusi, arakin,  
tabernari ta dendero,  
karga guztiak oien gañera  
ez itzazu bota gero!  
Nik gure erriko azoka ortan  
garbi ikusten det astero  
geienak saiatutzen dirala  
aukerik izan ezkerro.

5/ Geien-geienok zoratzen gaitu  
gaur dirutarako griñak;  
nola datorren ez begiratu,  
biltzen egin alegiñak.  
Kalean ainbat oker badira  
baserrietan egiñak.  
Gaur ezin leike iñor bereztu,  
danok baigaude berdiñak.

6/ Zorion dana dirua dala  
nola egiten degun amets,  
orretxegatik dabil mundua  
ain maldakaitz eta trakets.  
Beti besteak pekatariak,  
sekula egundafio geu ez;  
bafio zozoak beleari iñoiz  
deitu izan dio ipur-beltz!

7/ Iñor ez gera gustora bizi  
daramagun bizikeran,  
zintzo jokatu bafio okertzea  
naiago degu aukeran,  
geure pausorik geienak dira  
lagun-urkoen galeran;  
bein hiurritu gifiñan ta ez dakit  
herriz zuzenduko geran.

8/ Ama maitea, bitarteko zu  
bear zaitugu ontzeko,  
ain gutxi nola falta baidegun  
gure buruak galtzeko.  
Aiton laztana, eztira itz auek  
zuk naigaberik artzeko,  
ainbeste itzegin bearra zegon  
"saltxa" apurtxo bat jartzeko.

## FRAISKU MUTILZARRA

*Tabakua ta ardoa beti gorrotatu izan ditu Grazianok, bere ustez gizonaren galgarriak diralako. Eta ain zuzen, ori ispillu batean bezela erakusteko, asmatu zituan Fraiskuren bertso eder auek. Lenengo agertu ziran Arantzazuko errebistan. Ikus "Aránzazu" XXVI (1946), 90-91. "Aitonaren Uzta" deritzaion liburuan ere (Zarauz, 1961) agertu ziran berriro, baiña ez errebistatik artuta, zuzen-zuzenean Grazianoren aotik jasota bai-zik. "Aitonaren Uzta"-ko edizio ontan bi bertso gutxiago datoz: ori izango da, noski, neri esan zizkidanean, bi bertso oiek aaztu-edo egin zitzaizkiolako.*

*Gaiñerakoan, nere ustez, jatorrago dago "Aitonaren Uzta"-n agertu zan bezela, eta oni jarraitzen diogu emen, baiña bestearen varianteak notetan adieraziaz. Errebistako testua esango nuke gramatika-aldetik piska bat orraztua dagoela; batez ere interrogatibo ez-tiran nola guztiak aldatu zizkioten.*



1/ Mutilzar arroski bat  
Fraisku zeritzana,  
anaiaren etxian  
lasai bizi zana,  
fumatzaile itsua,  
txurrutlari ona:  
aiek eman zioten  
alako atzena.

2/ Oso zitun maitiak  
pipa ta zatua,  
ardua ere asko,  
baita tabakua:  
bere maitasuna zan  
aienganakua;  
aundiagorik ifork  
ez bezelakua (1).

3/ Sarritan egoten zan  
tabernan sartuta,  
bere etsai bi oiek  
adiskide artuta,  
aiekin zegonian  
oso txoratuta  
bere adimena ere  
askotan galduta (2).

4/ Ala esaten zuan (3):  
Biok ditut maite;  
nik ez diet utziko  
naiz da egin kalte.  
Ezin bizi nindeke  
oiekgandi aparte;  
nerekin bear ditut  
beste mundura arte (4).

5/ Bere atsegin dana  
edan da fumatu;  
noiz eta nola utzi  
ezin zun asmatu.  
Batak busti orduko  
bestiak legortu,  
sekula ezin zien  
neurritikan artu.

6/ Tabernatik etxera  
ala gau batian  
ain zijuan berandu  
bidia betian;  
moskorra soflean da  
pipa ere ortzian,  
anaia zai zegoan  
kezkatan etxian (5).

- 7/ Bere oia an zeukan  
kuartotxo batian,  
nola zan mutilzarra (6)  
toki apartian.  
Anaiak eldu zion  
besotik ataian,  
bere pipa ta guzti  
sartu zuan oian.
- 8/ Nola etzan konturatu (7)  
orduan anaia  
pipa egongo zanik  
itzali gabia;  
Fraisku ori nola zan (8)  
oso berekoia,  
etzuan kentzea nai  
ortzetik etsaia.
- 9/ Anaiak alde eta (9)  
lo jarri zanian,  
etzan luzaro egon  
pipa ezpafian.  
Nola zeukan bizirik (10)  
sua barrenian,  
txispak zabaldu ziran  
maindire gafian.

- 10/ Maindirea erretzen  
bazijuan sua,  
laister berotuko du (11)  
barruko eskaillua (12);  
ain da gogorra izan (13)  
moskorraren lua,  
kezkarik gabe zegon  
mutilzar lelua.
- 11/ Su ori lastaiara  
iritxi zanian,  
len baño bizkorrago  
asi zan lanian;  
aixa zabaldu zan ba  
inguru danian (14),  
laister zan garramilla (15)  
oiaren gañian (16).
- 12/ Fraisku ori asi zan (17)  
biziro berotzen;  
baña ala ta ere  
etzan ba esnatzen.  
Jarri (18) zitzaionian  
larrua erretzen, ,  
lozorroan asi zan  
orroi batzuk jotzen.

13/ Ain ziraden gogorak  
atzen-garraxiak,  
sustoz (19) esnatu ziran  
etxeko guziak.  
Oetik salto egiñaz  
esan zun anaiak:  
Oraintxe pagatzen du  
Fraiskuren biziak.

14/ Salto batian jun zan  
al zuan azkarren,  
sua besterik etzan  
dana gain da barren.  
Deadar egin zuan:  
Zer pasatzen da emen?  
Gorputza inpernuan  
anima baño len?

15/ Deadar egin zion  
andreaki bertati:  
Atoz onera bizkor  
Jaungoikuagati;  
Paternoster luze bat  
esaizu gogoti,  
ia ateratzen degun  
Purgatorioti.

- 16/ Alderdi danetatik  
goietaño sua (20),  
erdiko potiñian (21)  
erretzen sarbua (22)  
Irakiten zegoan  
Fraiskuren barrua,  
etzan otza egongo  
an zeukan ardua.
- 17/ Aienganako zeukan  
maitasun goxua,  
biakin zeukan bere  
konfiantza osua;  
batak logura eman  
da bestiak sua,  
laister konpondu zuten  
mutilzar gaixua (23).
- 18/ Famili artan bazan  
espa ta negarra (24);  
ura zan iskanbilla  
da galdu bearra.  
Kufñatak esan zuan  
ala erdi parra:  
akabo, jaunak, ointxe  
gure mutilzarra.

19/ Fumatzaille bazera  
bear dezu jakin  
maiz gogoratutzeko  
Fraisku gaixuakin.  
Adiskide bazera  
bi etsai oiekin,  
aurki izan litezke  
zuretzat errekin.

20/ Lezio (25) onak artzen  
iñor ez aspertu,  
aitonai aditzeko  
danok egon gertu;  
Fraiskuren ondamena  
ara emen agertu,  
adiskide paltsorik  
laguntzat ez artu.

---

(1) Bertso au oso-osorik falta da Kuliska-Sortan agertu zan "Aitonaren Uzta" liburuan.

(2) Kuliska-Sortako liburuan bertso au, irugarrena bezela dator. Emengo eta Arantzazuko errebistako laugarrena, "Aitonaren Uzta"-n bigarrena bezela dator.

(3) **Ala esaten zuan.** Kuliska-Sortan: "Beti esaten zuan".

(4) **Beste mundura arte.** Kuliska-Sortan: "Bizi naizen arte".

(5) **Kezkatan.** Kuliska-Sortan agertutakoak kezkaten dio.

(6) **Nola zan mutilzarra.** Arantzazuko errebitan agertutakoak dio: **Mutilzarra zalako.**

(7) **Nola etzan konturatu.** Arantzazuko errebistan agertutakoak dio: **Etzan orduan ezer / konturatu anaia.**

(8) **Fraisku ori nola zan.** Arantzazuko errebistan agertutakoak dio: **Praixku ori, bertiz, zan / oso berekoa.**

(9) **Anaiak alde eta.** Kuliska-Sortak onela dakar: **Anaiak alde eginda.**

(10) **Nola zeukan bizirik.** Arantzazuko errebistan onela dakar: **Bizirik bai bai'zeukan.**

(11) **Laister berotuko du.** "Aitonaren Uzta"-k dio: **Berotzeko asmotan.**

(12) **Eskailua**=arrain koskor bat da, baiña emen esan nai du gizon fundamentu gabea, lagun kontau ezin leikiena (Graziano).

(13) **Ain da gogorra izan.** "Aitonaren Uzta"-k dio: **Nola dan ain gogorra.**

(14) **Inguru danian.** "Aitonaren Uztak"-k dio: **oiaren gañian.**

(15) **Garramilla**=gora igotzen dan sua edo garra. **Lastaia**=lastoakin edo maskalakin (artaburuaren azala da maskala) egindako jergoia (Graziano).

(16) "Aitonaren Uzta"-k oneia dakar: **mutilzarrara soseguz / lo zeguanian.**

(17) **Asi zan.** "Aitonaren Uztak"-k: **Jarri zan.**

(18) **Jarri.** "Aitonaren Uzta"-k: **asi.**

(19) **Sustoz.** "Aitonaren Uztak"-k: **sustora.**

(20) **Goietano sua.** "Aitonaren Uzta"-k: **Tetxuraino sua.**

(21) **Erdiko potiñian**=oe-erdiko zuloan, oiak egiten duen sakonean, potoluan.

(22) **Sarbo, zarbo** edo **sarge** da arrain koskor bat. "Emen Arantzazuko gure errekan eztagoz olakuk, baiña Oñatiko beste erreka batzuetan bai,



ba-dagoz. Beti zoruan egoten dira eta tenedoria sartuta arrapatzen dituzte" (Graziano).

(23) Bertso au oso-osorik falta de "Aitonaren Uzta"-n.

(24) **Espa ta negarra.** Aranizazuko errebistan dio: **garraxi-negarra.**

25) **Lexio.** "Aitonaren Uzta"-k: **Kontseju.**

## MORROIA ETA NAGUSIA

(Paulo eta Grazian)

*Paulo Ugarte, Arrikruzko semea (Arantzazuko auzoan), Grazianoren etxean egon zan bi urtean morroi. Orduan jarritakoak dira bertso auek. Arantzazuko errebistan agertu ziran. Ikus "Arantzazu" XXVI (1946), 146-147. Grazianoren morroi izandako Paulo ori gero Jaunmendirira ezkondu zan (Oñatiko baserri batera), eta oraindio denpora gutxi dala il da.*

1/ *Morroiak*: Mundura jaio nintzan  
ta nolabait azi,  
makinaabat txuri-beltz  
gazterik ikusi;  
orain gizon elkor bat  
artu det nagusi;  
onen mendean iflor  
ezin leike bizi.

2/ *Nagusiak*: Nere tatzak kontatzen  
zeu zatoz lenbizi,  
etxian eukitzea  
al dezu merezi?  
Toki onean zera  
bertsuetan asi.  
Ez nazu bialduko  
aurretik igesi.

3/ *Morroiak*: Zu-lako nagusiak  
gogaikarri dira,  
loak artu orduko  
esnatu begira;  
goizian goiz jaikita  
nekez erretira,  
bitartean askotan  
ipurdiak tira (1).

4/ *Nagusiak*: Morroiak eukitzea  
ipurdiak tira,  
ongi jana dabillen  
señaleak dira;  
nausia lanian da  
albotik begira,  
kontu oiek zurekin  
gertatu oi dira.

5/ *Morroiak*: Berandu oeratu  
goizian goiz deitu,  
gazte bat nola leike  
modu ortan oitu?  
Egun dana korrika,  
zuri norik jarraitu?  
Nagusi ondraduak  
menderatu gaitu.

6/ *Nagusiak*: Goizian juten banaiz  
seiretan deitzera,  
zazpirak aurretikan  
jaikitzen etzera.  
Lendabiziko lana  
galtzak askatzera,  
gosal-ordura arte  
etzatoz atzera.

7/ *Morroiak*: Gaztetatikan ditut  
ezurak eziak,  
lotan denbora motzak,  
lan ordu luziak,  
zure sakelarako  
nere irabaziak...  
Jaungoikoak aparta  
zu-lako nausiak.

8/ *Nagusiak*: Gizonak nai baditu  
munduan etsaiak,  
etxera artu bitza  
zu-lako galaiak.  
Lanez ezin ordaindu  
jandako ogiak,  
etxe-kalte dirade  
zu-lako morroiak.

9/ *Morroiak*: Engañatu ninduzun  
ongi esanian,  
ifluxente ta txoro  
ni nenguanian;  
soldata txikia ta  
gau ta egun lanian,  
orain akordatu naiz  
denbora juanian.

10/ *Nagusiak*: Lanerako aitzakiz  
or zabilta beti,  
zeuk jateko ere falta  
zuk egiñagati;  
soldata eman bear  
nere sakeletik,  
tripa trukian ere  
zu zera galesti.

11/ *Morroiak*: Zintzo saiatuta ere  
beti aitzakiak,  
oik dira zuk ematen  
dituzun graziak;  
polañak jasotzeko (2)  
nik erabakiak,  
laister egingo dizkizut  
etxeke pakiak.

11/ *Nagusiak*: Gizon apalen fama  
izandu det beti,  
ez det bialdu izan  
iñor nere etxeti.  
Ai jungo bazifiñake  
zeure burutati!  
Propiña emango dizut  
irteteagati.

13/ *Morroiak*: Gauzarikan latzena  
munduan morrontza;  
ez da konparatutzen  
txoriakin ontza.  
Nausiaren soñuan  
egin bear dantza,  
utsa baldin bagendu  
geroko esperantza.

14/ *Nagusiak*: Oraingo morroiakin  
ezin leike bizi,  
bialdu nai gaituzte  
mundutik igesi.  
Sekula gaur bezela  
bai al da ikusi  
nagusia morroi ta  
morroia nagusi?

15/ *Morroiak*: Egia esango dizut  
nai badezu jakin:  
aspaldian bizi naiz  
kezka aundiakin:  
zer izango ote dan  
munduan nerekin,  
sarritan egin oi dit  
odolak irakin.

16/ *Nagusiak*: Geigo luzatu gabe  
despeida adi zak:  
elkar zirikatutzen  
alperrik gabiltzak.  
Badakizkik asmatzen  
gezurrezko itzak...  
I ez au ondatuko  
gibealeko gaitzak.

---

(1) "**Ipardiak tira** ibiltzea da lan asko agin du ta korrika ta larri ibilli bear izatea" (Graziano).

(2) **Polañak jaso** = alde egin, iges egin.



## "BASARRI" JAUNARI

*Berriz dator emen Graziano Basarri jaunaren bertsoei erantzutera. Kaletarrak ezta-  
kitela baserriko nekeen berri ta abar, esaten  
dio.*

*Arantzazuko errebistan azaldu ziran bertso auek ere. Ikus "Arantzazu" XXVI (1946),  
172.*

1/ *Basarri jaunari zorion asko  
nik emango dizkat beti,  
bertso lanetan bera baidabil  
beste guztien gafiati.  
Txantxa-benetan kaletarrakin  
asi giñan lenbiziti,  
"Arantzazu"-ren irakurleak  
ugaritutzeagati.*

2/ Sei urterekin jetxi bazifian  
baserritikan kalera,  
ikusi zendun etzala izan  
zure buruen galera;  
maitasun asko izan bazendu  
jaiot-etxien aldera,  
kaletik iges egingo zendun  
nekazarien taldera.

3/ Nekazarien bizimodua  
zein latza ta gogorra dan,  
bear bezela ezagututzen  
kaletarrak badute lan;  
lurraren emaitz goxoentsuak  
nai lituzkie xamur jan,  
baita guk ere lasai egonda  
bagenduke zefiek eman.

4/ Arantzazuko baserritarrak  
eta Zarautz aldekuak  
—nola ditugun ain ezberdifik  
munduko bizilekuak—,  
truke eginda betoz onera  
len or loditutakoak,  
or loditzera gu joango gera  
emengo aitona plakuak.

5/ Errugabiak dira niretzat  
kalian jaio diranak,  
ez dakite, ba, zein latzak diran  
baserriko neke-lanak;  
baserrin jaio, xamur bizi nai  
ta kalera jun diranak,  
oiek dirade nekazarien  
etsairikan gogorrenak.

6/ Sal-eroslerik aitatutzera  
aitona ez dijua berriz,  
obe litzake len esandako  
guztia gezurra balitz;  
gaztetatikan aspertua naiz  
aditzen milloika aldiz  
zeintzuk loditzen duten sakela  
beartsuaren izerdiz.

7/ Parra egiñaz ipur-beltz bota  
zozo leluak belia,  
usteko zuan txuriagoa  
izango zala beria.  
Gaitz orren bidez jartzen dijua  
zentzun gabe gizadia...  
Zozo ta bela guztiak bafio  
beltzagoak ere badia.

- 8/ Esan diguzu danok degula  
dirua biltzeko griña,  
nik ez det uste daukagunikan  
guztiok asmo berdiña.  
Amaikatxo bai burua astun,  
baiña sakela ariña;  
gaurko gaztiak zabaltzen ere  
egiten dute alegiña.
- 9/ Danok dakigu gure Jesusek  
nola zizkigun agindu:  
batak bestiai gaitzik ez egin,  
al dan guztia lagundu,  
kalterik iñork egin badigu  
mesedeakin ordaindu...  
Au egin ezik obe genduko  
kristau bidetik aldendu.
- 10/ Ama Birjiña beti egon da  
gu guztion bitarteko,  
aren bearrik etzan, ba, izan  
len adarrak okertzeko;  
amaika aldiz dei egin digu  
kristau danok alkartzeko,  
seme leialak beti izanda  
bera Amatzat artzeko.

## ARANTZAZU, ZE IZEN EDERRA!

*Graziano, Arantzazuko auzotarra izanik, emen jaio, ta bere bizi guzia emen emandakoa, gure Ama Birjiñaren kondaira ondo dakitenekoa da. Kondaira ori kontatzen digu bertso auetan, bere aurrekoei entzun izan dien bezela.*

*Ikus "Arantzazu" XXVI (1946), 218-129.*

1/ Arantzazu! Ze izen ederra,  
euskaldunen pozgarria,  
Baltzategiko artzai Rodrigok  
bere mingañez jarria;  
ikusirikan ain apaindua  
Aloñako elorria,  
bere gañian arantz tartian  
Birjiña agurgarria.

- 2/ Jesus aurtxoa besoan eta  
 berez jotzen zintzarria,  
 Rodrigotxori agertzen zaio  
 ikusgai zoragarria.  
 Belaunikatu auspez jarrita  
 esanaz "Agur Maria",  
 galdetzen dio: Arantzan Zu?  
 zeru ta lurren jabia?
- 3/ Iru urtian geramakigun  
 legorte izugarria,  
 berealati erasotzen dio  
 Oñatirako bidia.  
 Esaten die nola zegoan  
 gure Birjiña Maria,  
 an estalpean jarritakoan  
 egingo zula euria.
- 4/ Parre egiñaz artu zioten  
 eraman zien berria.  
 —Mutiko onek nun asmatu du  
 orlako txorakeria?  
 Baño Rodrigon galdu-bearra  
 zan neurririkan gabia,  
 bere malkoak busti ezkero  
 bigunduko zan arria.

5/ Ikusirikan artzai gaztea  
ainbesteraño lertuta,  
ala apaiz da beste jaun batzuk  
beretzaz errukituta,  
esan zioten: —Zoaz etxera,  
lo egin zazu apalduta.  
Biar goizian gu joango gera  
zu aurrelari artuta.

6/ Esan bezela, artzai gaztea  
jarri zitzaien aurreti,  
aldapa gora bataren beste  
bazijoazen gogoti,  
Rodrigo ori salto egina  
sasi guzien gafieta,  
bere Birjina maitagarria  
mingahean zeukan beti.

7/ Urrutitikan aditu zuten  
bere zintzarriaren otsa,  
orduante bai bakoitzak zoli  
zeraman bere biotza;  
arantz artean bera ikusita  
aiek artu zuten poza!  
Zuzendu zien maitasunezko  
begiratu bat zorrotza.

8/ Auspez jarrita beren otoitzak  
zuzendu zizkatenian,  
estalpetxo bat jarri zioten  
al zan modu onenian.  
Agur eginda etxe aldera  
biurtu ziradenian,  
laño-anka bat (1) itxas aldeti  
ikusit zuten airian.

9/ Bide erdira eldu baño len  
beltzitu zitzaien goia;  
odei lodiak ixuri zuten  
euri gozo ugaria.  
Baztar danetan aditu zuten  
mirari onen berria,  
galdetzen zuten nundik zegoan  
Arantzazura bidia.

10/ Beste ezbear negargarri bat  
bazuten Euskalerrian,  
ixkanbilla ta burruka baten  
elkar galdubearrian.  
Damutu eta auspeztu ziran  
Birjiña Amaren aurrian;  
berealaxe jarri zituan  
pakerik ederrenian.



11/ Andik onera Amatxo onek  
egindako mirariak  
mundu guztian izandu dira  
aundiak eta ugariak.  
Zein laguntzalle ona dan bera  
asko gaude igarriak,  
biotzetikan esker umillak  
zor dizka Euskalerrriak.

12/ Gu Arantzazun bizi geranok  
oraintxe Agorrillean  
egoten gera urte guztiko  
pozgira ederrenean;  
Birjiña Amaren jai eder oiek  
eldutzen diradenean,  
senide eta adiskideak  
bazkaltzen geure etxean.

13/ Jan da edan da kontu-kontari  
eguna igaro arin,  
biotz oneko euskaldunentzat  
ori bai dala atsegin.  
Aurreko zorrak ordaindu eta  
artzeko herriak egin,  
Euskalerrriko oitura ona  
sekula galdu ez dedin.

- 14/ Arantzazuko Birjiñarentzat  
erregurik ederrena  
egun oietan egiten zaion  
bere bederatziurrena.  
Makiña batek bere aurrian  
lasaitu degu barrena;  
esku utsean ez du bialtzen  
biotz onez datorrena.
- 15/ Urte danetan guztiok egin  
Arantzazura bixita  
ezbiar danak aienatzeko  
zeruko Ama ikusita,  
ala bakoitzak bere meza ta  
limosnatxoak utzita,  
pozez etxera urte guziko  
bere laguntza iritxita.
- 16/ Amaren billa ez bakarrik jun  
gaitzen bat datorrenean,  
agur egiñaz beti jarraitu  
zorionez gaudenean.  
Txorakeritan baldin bagabiltz  
osasuna degunean,  
begi txarrakin artuko gaitu  
negarrez goazenean.

17/ Sartu guztiok Arantzazuko  
Birjiñaren Kofradian  
nai ez badegu eroritzea  
inpernutarren sarian.  
Iru Agur-Mari beti esanaz  
egunez edo gabian,  
gure animen etsai guziak  
aienatzeko airian.

18/ Aditu eta ikusitzeko  
aitona zarran egiak  
amaika gaztek itxiko ditu  
belarri eta begiak.  
Sekula inun atzen onikan  
ez daka txorakeriak,  
gero San Martin datorrenean  
orduantxe komeriak.

---

(1) **Laño-anka bat:** "Ala esaten zuten antxi-  
ñakoak. Neure aitari entzundakoa da ori" (Gra-  
ziano).

## 1946-KO URTEARI

*Nekazaria beti zerura begira dagoela esan oi da, eta egia izan, alajaiña! Gure Grazianok ere, nekazari txintxoak izanik, beti izan du eguraldiaren kezka. Negarti-xamarra eta etorkizuna beltz ikusten zalea ere bada, piska bat beintzat. Bertso auetan 1946-ko urtearen goraberak utzi zizkigun.*

*Arantzazuko errebistan atera ziran. Ikus "Aránzazu" XXVI (1946), 264-265.*

I/ Ara milla bederatzireun  
eta berrogei ta seia,  
toki goietan bizi geranok  
gogoangarrizko urtia;  
aize gorritan igaro degu  
aurtengo uda guzia,  
ekarri digu zati bateko  
egarria ta gosia.

2/ Ilbeltza eta otsailla ziran  
gozakaitz eta zepotzak (1),  
aitona zarrok garbitu biar  
dardara egifiaz ortzak;  
aize urruma kanpua eta  
etxe barrunetan otzak,  
kakuetak txamarra zarrak  
billatzen zitun bakoitzak.

3/ Nolabait ere oiek pasata  
eldu zitzaigun martxua,  
ardientzako larrerikan ez,  
etzan izan belartsua.  
Artzaiak ala esaten zuten:  
"Auxen dek urte antzua!  
Gu baño obeto egongo al dek  
zeruan dagon atsua!"

4/ Udaberrien itxura gabe  
igaro zan apirilla;  
baserritarrak lasto erosten  
beiak mantentzia zalla.  
Ortz eta guzti etorri ziran  
maiatza eta bagilla,  
astuak ere arrantzarikan  
ezin jota eguzki billa.

5/ Belarrak asko azi ziraden  
baita luzatu gariak,  
zuti egoten aspertu ziran  
asko ziran eroriak,  
irifietara ximurrak, bafia  
lastotara ugariak,  
sekulan ere emaitz onikan  
izaten ez du nagiak.

6/ Artuak nekez erein ziraden  
ta lurra sasoi txarrian,  
aize gorritan nekez jaiota  
ezin sartu indarrian,  
berorikan ez gañetik eta  
ura palta zuztarrian;  
begira ondo zenbat alperlan  
egiten dan baserrian.

7/ Garagarrillak bai baidakarzki  
emaitz on maitagarriak,  
ari begira danok txoratzen  
jateko opil berriak.  
Aize gorria kapitan zala  
kanpo danak egarriak,  
gari jausiak jaso ezinda  
ausi ginduzen gerriak.

8/ Gaurko egunian sasoi juanian  
asko oi dira txoratu...

Agostu illen euri gozoak,  
baba zimelak loratu,  
lekatutzera nekez iritxi,  
alerik etzuten artu,  
agor illeko sorgin-aizeak (2)  
danak erabat igartu.

9/ Agorra agor etorri zaigu,  
garaillari aize txarrak,  
desegindurik arbiak eta  
alpapa ta birbelarrak;  
beiak errape zimelak eta  
atze-aurreak igarrak,  
esnea lodi ateratzeko  
ez daude alderdi txarrak.

10/ Belarriak ebaki dizkigu  
iparreko aize miñak,  
bizigarriak eskutik kentzen  
egin dizkigu alegiñak.  
Gariak apotz (3) eman ziguten  
artuak daude mirriñak (4),  
izango dira sakelak utsik  
eta urdallak ariñak.

11/ Ikusgarria daukagu berriz  
lur-sagar edo patata,  
ume txikiak irteten dira  
ama aundiak botata.  
Sekulan beti gure nekea  
ordañik gabea da ta,  
begira nola erantzun digun  
ainbesteraño kostata.

12/ Gaztaña ere atzera dago  
ezin aurreratu iñola,  
arboladia jarria dago  
osto zarra dariola,  
morkotsa illun azaletikan  
eta barrundik mokola,  
aurki biltzera goazenian  
alerik ez da koskola.

13/ Urri-il onek asieratik  
berotu gaitu gogoti,  
odei lañuak agertzen dira  
Naparruaren gafieti.  
Berandu ere gozagarria  
ona izaten da beti:  
orri deritza "asto illari  
garagarra buztaneti".



14/ Ara urte au nolakua dan  
asieratik onera,  
urrillaren lauean gaude-ta  
begira zagun aurrera.  
Gutxitxo jan da lasai bizitzen  
orain oitutzen bagera,  
negu luzea igarotzeko  
ongi prestatuko gera.

---

(1) **Zepotza** = latza, gozua eziana (Graziano).

(2) **Sorgin-aize** = Buelbaka datorrena, zurrumillo egiñaz (Graziano).

(3) **Apotz eman** = ez eman, gutxi eta txarra eman (Graziano).

(4) **Mirriñ** = zatarra, eskasa ta gutxi (Graziano).

## LANGILLEA TA ALPERRA

*Bederatzi puntuko bertso auek ere Arantzazuko errebistan agertu ziran. Ikus "Arantzazu" XXVII (1947), 42-43. Grazianok dienez, asko gustatu ziran.*

*Grazianorentzat —Axularrentzat bezela— alperkeria da bizio guztien ama eta sustraia. Langille esatea eta zintzo esatea, dana da bat. Emen ari dira burrukan langillea eta alperra, bakoitza bere usteak eta arrazoiak ematen.*

1/ *Langilleak*: Zu alper osoa ta  
ni langille piña,  
orretzek ematen dit  
barrengo miña,  
bion bizimodua  
ain da ezberdiña...  
Zuk xamur arrapatu  
nik nekez egिña.  
Guztiontzat laña  
zuzendu eziña  
nere alegiña  
saiatzen naiz baña,  
langillearen kalte  
alperren grिña.

2/ *Alperrak*: Zu langille piña ta  
ni alper osua,  
gure bizimodua  
ain da erosua...  
bestei arrapatua  
bai dala goxua!  
Ofiziua degu  
guk ortarakua;  
alperren jokua  
arrapatzekua  
bestek eindakua,  
jan da edan naikua  
guk ere geure lagun  
degu Jainkua.

3/ *Langilleak*: Guztiontzako dago  
Jaungoikoa lagun;  
ez al dakizu nola  
agintzen digun,  
guztiontzat lege bat  
ezarri zigun,  
lagun urkoai gaitzik  
ez egiteko iñun?  
Alperrak ezagun  
guri eta legun,  
gu latz eta illun  
lanian gau ta egun,  
pentsa zazu gero zer  
izango degun.

4/ *Alperrak*: Gero ajolikan  
ez det nik aldian,  
nago lasaitasunik  
ederrenian,  
ez det kezkarik ere  
nere barrenian,  
jan da edan lasai egin  
al dedan danian;  
parranda gabian,  
egun argiz oian,  
jaiki eguardian,  
bazkari ona maian,  
ala ere bizi naiz  
geiago naian.

5/ *Langilleak*: Bizio danak datoz  
alperkeriati  
norberak biarrrik ez  
egiteagati,  
xamur arrapatuaz  
naiz bide txarreti,  
jan da edan lasai egin  
besten bizkarreti,  
ongi itz aurreti  
asmo okerreti  
inpernu bideti  
zabiltzate beti:  
animaren galera  
datorkizu orti.

6/ *Alperrak*: Inpernuen bildurrik  
nik ez det buruan  
nola nere barrena  
lasai daguan;  
atso zar batzuk baizik  
ez daude zeruan,  
gazte alai guztiak  
daude inpernuan.  
Len ere munduan  
aiskide nituan,  
nai genduan moduan  
jostatzen genduan,  
ongi artuko naute  
noian orduan.

7/ *Langilleak*: Inpernuen izena  
da bildurgarria,  
Jainkoak gaiztoentzat  
dauka jarria;  
bizitza gaizto orrek  
dakarren arria  
zeure animarentzat  
dezu galgarria:  
eternidadia  
azken gabia.  
Orain da garaia,  
kontura zaitia,  
nai badezu ikusi  
Jesus maitia.

8/ *Alperrak*: Ez da bildurgarrik  
ni ikaratzeko,  
nere bizimodua  
galerazteko.  
Ogei bat milla duro  
nork dauzka emateko,  
neronek inpernuan  
gero pagatzeko?  
Prest nago artzeko,  
kolkuan sartzeko,  
ondo jostatzeko,  
dana gastatzeko:  
zerua utziko dizut  
zerorrenzako.

9/ *Langilleak*: Eskuan al daukazu  
zerua uzteko?  
Jakín egin biar da  
erakusteko.

Ia garaian zaude  
kontuan jausteko,  
premia ere badezu  
zerbait ikasteko,  
zuzentzen asteko,  
bide txarra uzteko,  
gaitz ori ikusteko,  
damua irixteko:  
zerua ez daukagu  
diruz erosteko.

10/ *Alperrak*: Txorakeri oiekin  
ez neri etorri,  
oiek dira eruen  
engafiagarri,  
lagun eiten diogu  
alperrok alkarri,  
munduko lege danak  
geure alde jarri,  
langilleok larri,  
alkarren galgarri,  
gose ta egarri  
beti lotsagarri,  
nundik galtzen zeraten  
ezin igarri.

11/ *Langilleak*: Obe degu munduan  
al dana sufritu,  
Jainkuak ortarako  
bialdu gaitu.  
Orain da garaia ta  
zuek ere aditu:  
besteri kendu gabe  
norbera saiatu,  
lana egiten oitu,  
Jaunari obeditu,  
Berak nola deitu  
artara jarraitu,  
bestela inpernura  
botako gaitu.

12/ *Alperrak*: Jaio ezkerro danok  
gerade zeozer,  
batzuek gozagai ta  
besteok piper.  
Ez degu errukirik,  
naiz zuek egin ler.  
Nik eskubitik baño  
naiago det ezker,  
erdi edo bazter  
arrapatu laister;  
zuzen edo oker  
ajola ez ezer:  
zu zintzo zeran arte  
ni beti alper.



13/ *Langilleak*: Jainkuarenak dira  
gure izakiak,  
Jesusek bere odolez  
gauzka erosiak,  
berai zor dizkiogu  
ditugun guztiak.  
Zuk inpernutarrentzat  
dauzkazu utziak,  
ango oñaziak  
eta garraxiak  
zeuk irabaziak  
ondo mereziak:  
muturra beltza dauka  
ango nagusiak.

## OSASUNAREN ITURRIA EGUNSENTIKO TXORIA

*“Gorputza berez alperra da ta / norberak  
biar du ezi”... Ala dio Grazianok, eta ziñez  
berak ondo bete izan du agindu ori. Gaua  
lotarako ta eguna lanerako. Berak dionez,  
lege ori jarri zigun Jainkoak, eta gorputza-  
ren osasuna zaintzeko ere eztago ura gorde  
bezelakorik. Bera goiztarra izan da beti,  
eguzkia irten aurretik dantzari dabillen txo-  
riaren laguna. Eta bizikera gogor oni zor  
dio, noski, gorputzeko bere sendotasun eta  
osasun arrigarria.*

*Bertso eder auek Arantzazuko errebistan  
atera ziran. Ikus “Aránzazu” XXVII (1947),  
70-71.*

- 1/ Zorioneko izan dedilla  
beti gure Euskalerria,  
danok aditu aitona onek  
dakarkizuten berria:  
ez dakienik iflor badago  
zer dan osasungarria,  
goizero al bait ikusi beza  
egunsentiko txoria.
  
- 2/ Mendirik txoko datorrenian  
eguzkiaren argia,  
bere aurretik dantzari dabil  
txoritxo abeslaria;  
egunsentiko usai gozoa  
eztitsu eta garbia  
gorputzarentzat osasuntsua  
animen bizigarria.
  
- 3/ Mundu guzia gozatzen duan  
eguzki dizdizaria  
illunpetik gu ateratzeko  
gure Egilleak jarria,  
mundutar danok zor dioguna  
bere ongi etorria,  
eskergabia ordu oietan  
lotan dagan nagia.

4/ Jainkuak gaba jarri zigun bai  
lotan atsedean artzeko,  
ez deabruzko atsegiñetan  
gure buruak galtzeko;  
egun argia norbere lanez  
ogia irabazteko,  
gizonak ez du eskubiderik  
aren legia austeko.

5/ Gaba eguntzat artzen dutenak  
badira mundu onetan,  
Jaungoikuari kiku egin (I) nai  
deabruaren lanetan.  
Zu obenlari zabiltenian  
naiz ibilli illunpetan,  
Jaungoikoaren begi argiak  
ikusiko zaitu bertan.

6/ Lizunkeritan gaba igarota  
egunsentian ogera,  
illunetako basoko pizti  
kaltegarrien legera;  
eguzkiari iges egiaz  
orla ibiltzen bazera,  
amilka zuaz uste baño len  
zeure burua galtzera.

7/ Gorputzak ezik animak ere  
biar ditu janariak,  
ala dauzkagu eleizkizunak  
goiz aldetikan jarriak,  
gure otoitzez gozatutzeko  
animaren egarriak;  
bide ortatik igesi dabiltz  
gabeko obenlariak.

8/ Guziok degu jai egunetan  
meza bat entzun biarra,  
aste-egunetan entzutia ere  
ez dala oitura txarra.  
Emen ordaintzen ez badiogu  
Jesuseri gure zorra,  
beste munduan emango digu  
benetan epai gogorra.

9/ Jesusek berak utzia degu  
bere mingañez esanik  
zeruan ezin sartuko dala  
oker dabillen gizonik;  
egunsentian plausta lotara  
meza-ordua izanik:  
orrelakuak ez luke biar  
katolikuen izenik.

10/ Jainkuak eman gorputz ederra  
osasun onez betia,  
ta bataiuaren bitartez  
anima garbi maitea;  
aiek zaintzeko adimena ta  
baita ere borondatia;  
ala ere nai Jainkuen gauzak  
deabruai ematia.

11/ Gorputza berez alperra da ta  
norberak biar du ezi,  
zeru aldera begira beti  
inpernutarren igesi,  
alperkeriko bide okerrik  
ifioiz ez dezan ikasi;  
ajola gabe dabillen orrek  
zerurik ez du merezi.

12/ Amar agindu Jainkoarenak  
garbiro gorde ditzagun,  
berak agindu bezela artu  
gaba gau ta eguna egun,  
egunsentiko txori alaia  
goizetikan gure lagun,  
Jesukristoren ardi zintzuak  
izan gaitezen ezagun.

13/ Arantzazuko Ama Birjina  
danok iduki goguan,  
bere medalla eta kutuna  
beti eraman lepuan,  
gure goibera guziok utzi  
danak beraren eskuan:  
umeak ongi izaten dira  
ama dagoan lekuan.

14/ Nere anaiak, aditu danok  
aitona zarraren deia:  
orra nik esan nundik datorren  
osasunen iturria.  
Izango dezu anima illun  
ta gorputz almen gabia,  
baldin ikusi nai ez badezu  
egunsentiko txoria.

---

(1) **Kiku egin** = iges egin (Graziano).

## ERLEEN BIZIMODUA

*Erleetan ikusten du Grazianok gizonentzat eredurik onena. Aiek ba-dute agintari bat eta aren esanetara daude danak. Lan egiten miragarriak dira. Alperrak, berriz, ezten-kolpez iltzen dituzte. Oin biko alperrakin ori egingo balitz!*

*Arantzazuko errebistan atera ziran. Ikus "Aránzazu" XXIX (1949), 136-137.*

- 1/ Alperkeria degu  
gaitzik okerrena  
eta zintzotasuna  
doairik ederrena.  
Erlea da munduan  
danik zintzoena  
eta beren legea  
danetan onena.



2/ Erregiña bat dute  
denai agintzeko,  
biargilleak zintzo  
obedezitzeko;  
lana egin bearra  
dago bizitzeko,  
eskua ematen die  
alperrak iltzeko.

3/ *Anbuak* deritzaie  
erle alperrari.  
Oiek erletan ere  
jaio bai ugari,  
bizia motza dute  
—badakite ori—,  
ala ere jarraitu  
alperkeriari.

4/ Goizean langilleak  
egunen begira  
loratxuak biltzera  
juteko mendira,  
beaje bakoitzean  
berealala jira;  
anbuak ordu artan  
lo egoten dira.

5/ Egun dana goizetik  
asi ta gauera  
langilleak bai zintzo  
mendirra ta etxera;  
karga bakoitza utzi  
lasterka atzera;  
anbuak arratsean  
pasiatutzera.

6/ Lore danak zimeltzen  
asten diranean,  
biarrik egin ezin  
uda-atzenean.  
Orduan asten dira  
borrero-lanean,  
erregiñak baimena  
ematen dienean.

7/ Iru edo lauk eldu  
anbuai batera,  
or dijoa amilka  
beren ankapera;  
aien atzaparretan  
ezin jaiki atzera;  
ildakoan tatarrez  
etxetik atera.

- 8/ Batzuk egiten die  
il ezinda iges,  
baña alperrik, iñork  
morroi ere nai ez,  
atzera datoz gero  
irtendako bidez,  
bere bizia uztera  
garraxiz ta aiez.
- 9/ Baña ez dituzte iltzen  
anbo diran danak,  
batzuk uzten dituzte  
bearren diranak;  
zintzo egin ditzaten  
dagozkien lanak;  
bestela ezin sortu  
beren ondorenak.
- 10/ Ez dute abogadurik  
ez ta ere juezik,  
erregiña bakarren  
epai beltza baizik;  
naiz egon gazte eta  
bizitzeko pozik,  
eriotza gañera  
biarra egin ezik.

11/ Erletan ere iñoiz  
baleike gertatu  
langilleak alperra  
ezin menderatu,  
il bear lirakenak  
bizirik geratu;  
negu artan goseak  
danak iltzen ditu.

12/ Erle oien bizitza  
nai duanak ikasi  
ara emen garbiro  
nik adierazi;  
jartzen diran tokian  
alperrak nagusi  
langillerik iñolaz  
ezin leike bizi.

13/ Alperrik egiten da  
askotan zenbait itz,  
okerrik ez legoke  
gu zuzen bagenbiltz.  
Obeto bizi leike  
makiña bat aldiz  
oin biko anbuakin  
au egingo balitz!!!

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola  
**SAGARDOAREN GRAZIYA** ta beste bertso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa  
**GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.**
- 3.—F. Apalategui, S. I.  
**EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.**
- 4.—Pepe Artola  
**USTEZ LAGUN DETAN** ta beste bertso asko.
- 5.—P. M. Urruzuno  
**EUSKALERRITIK ZERURA** ta beste bertso asko.
- 6.—Toribio Alzaga  
**RAMUNTZO.**
- 7.—Ramos Azkarate  
**GALTZAUNDI** ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza  
**PATXIKO TXERREN**
- 9.—Bitoriano Iraola  
**OROITZAK** ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak  
**ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA**  
(1962).
- 11.—Piarres Larzabal  
**BORDAXURI.**
- 12.—Bilintx  
**BERTSO TA LAN GUZIAK.**
- 13.—Mariano Izeta  
**DIRUA GALGARRI.**
- 14.—Piarres Larzabal  
**IRU ZIREN**

- 15.—Bertsolariak  
**EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.**
- 16.—Alfonso M.<sup>a</sup> Zabala  
**GABON GAU BAT ta beste ipui asko.**
- 17.—Antonio M.<sup>a</sup> Labayen  
**MALENTXO, ALARGUNI**
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.  
**TXIRBITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).**
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.  
**LURDESKO GERTAERAK.**
- 21.—Piarres Larzabal  
**HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.**
- 22.—Bertsolariak  
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA  
(30-XII-1962).**
- 23.—**AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.**
- 24.—Fermin Imaz  
**BERTSO GUZIAK.**
- 25.—A. P. Iturriaga  
**JOLASAK.**
- 26.—Alfonso M.<sup>a</sup> Zabala.—A. Larraitz.—Juan Mi  
**PERIYAREN ZALAPARTAK. — Melitona'**  
**ren bi senarrak. — Mendibe'tarren larri-**  
**yak. — Utzi bearko! — Gizon bikañak.**
- 27.—Bertsolariak  
**AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.**
- 28.—Bizenta A. Mogel  
**IPIUI ONAK.**
- 29.—Toribio Alzaga  
**BURRUNTZIYA. — Bernaiño'ren larriyak.**  
**Txibiribiri. — San Tomas'eko ferlyak.**
- 30.—Graziano Anduaga  
**EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso**  
**asko.**

